


BERTSOLARIAK

A M A R U R T E K O
B E R T S O - P A P E R A K

(1954 - 1963)



AUSPOA LIBURUTEGIA

**AMAR URTEKO
BERTSO - PAPERAK
(1954 - 1963)**

AUSPOA LIBURUTEGIA

39

COLECCION AUSPOA

Administración:: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.
Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 240 pezeta Atzerrian: 325 pezeta
Ongilleak: 400 " Ale bakarra: 30 "

BERTSOLARIAK

AMAR URTEKO
BERTSO - PAPERAK

(1954 - 1963)

(Biltzalea: A. Zavala, S. J.)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1964

Depósito Legal S. S. 734/64
Número Registro 4270/64

IMPRESO EN "GRAFICAS IZARRA" - PEÑA Y GOÑI, 13 - TEL. 17331
SAN SEBASTIAN (ESPAÑA)

ITZAURREA

Liburu au, azken amar urte auetan argitaratu diran bertso-paperekin osatu degu.

Argitaratutako guziak ez daude emen noski. Danentzat tokirik etzegoan eta onentxue-nak aukeratu ditugu, gañerakoak alde bat utzirik. Ta gure eskuetara eldu gabe, bazterretan gelditu danik ere izango da bat baño geyago.

Emengo bertso-sail guziak, iru izan ezik, inprentatutako bertso-paperetatik artu ditugu. Beste iru oyek, makinaz idatzita eskuratu ditugu. Olakoak zein diran, aldi bakoi-tzean gaztiatuko da.

Euskal-errebistetan ere badago Basarrik, Gezaltzako aitonak eta beste zenbaitek jarritakorik, bañan liburu ontarako ez degu olakorik kontuan artu.

1963-gn. urtean, Euskaltzaindiak bertso-paper-txapelketa bat antolatu zuan, antziña-

ko bertso-paper jartzeko oitura zar eder ori indartu nairik. Bertso-paper mordoxka polita etorri zan. Auetatik geyentxuenak liburu ontan sartu ditugu.

Lengo tamañan ez bada ere, gaurko bertsolaritzak jarraitu dio, beraz, bertso-jartzeari.

Ala ere, irakurleak ikusiko duanez, gaur egunean bertso-jartzalleen izenak eta plaza-bertsolarienak, biak bat ez dira.

Onak erakusten du, plaza-bertsolaritzaz gañera, badala gaur ere beste bertsolaritza bat, bertso-jartzekoa, merezi ainbat ezagutzen ez deguna.

Bañan, zoritxarrez, gaur motel antzean bizi da bigarren bertsolaritza ori, lengo aldean beintzat.

Liburu onek indar berri pixka bat eman-go al dio!

(1954)

BERTSO BERRIYAK
LEXOTI JAUNARI IRIARTE'K
JARRIYAK

1/ Apirillaren ogei ta bosta
San Markos egunakin zan,
apostu bikain bat jokatzeko
bi lagun Oyartzungo plazan;
zerbait ikusi nayian ara
jendia pranko juan zan,
beste lanetan alproja dana
an ere ez da piña izan.

2/ Lenengo arriyak jaso eta
egurrik moztu eziñik,
iñun ez baita beñere ikusi
era ortako kuziñik,
jakindu degu lenagoztikan
asko zeudela jakiñik,
itxura pixkat egiñagatik
etzendula asmo fiñik.

3/ Korredoriak ogei amaikai
jokua asi baño len,
danak beldurrak jarri giñaden
zer ikusi bear genduen,
oyek ez dute jakingo noski
Lexoti jaun ori nor den,
beran arronkak bajatu ziran
minutu gutxi baño len.

4/ Don Lexoti onek eju ta bulla
ibilli digu galanki,
zenbatxo gizon engañatu dun
Jainkoak bakarrik daki,
lengo jai ortan opa diyote
asetzeko ainbat jaki,
arronka pixkat badauka baño
indar gutxitxo izaki.

5/ "Erriyan ez da arri jasotzen
gaur ni aña badanikan,
ez aizkoran eta ez korrika
bildurtutzen nauenikan";
au adituta ezin gozatu
gendun gure barrenikan,
ez nuan uste engañatutzen
ain errezak giñanikan.

- 6/ Atzerritikan jendia datoz
autobus denak beterik,
au da emengo eskandalua,
orla ez dago egoterik,
garayan da ta oraindikan e
ez da zabaltzen aterik,
ez baligute sartzen utziko
ez genukela kalterik.
- 7/ Nekez bedenik ekin diyote
agindutako lanari,
gustua eitia itxura zuen
begira zeuden danari,
bañan odola zuri xamarra
duen gizona da ori,
berai tokatzen zayen puskatik
ezpal bat ez da erori.
- 8/ Egun bat kolpe emanagatik
puska moztutzen etzuan,
pensatu gendun ollo-kotako
iskallera ote zuan,
bestela itxura geyago egin
bein asi ziran kasuan,
arronka franko badezu baño
abildadia auzuan.

- 9/ Ez-ezaguna engañatzen du
zenbait personen izketak,
bai eta ere askotan artu
izugarrizko kasketak,
zazpi bat azal gutxinez dauzka
Lexoti orren kopetak,
Uztargilliak billatu ditu
onen indarran krisketak.
- 10/ Jokua galdu, ondo bazkaldu,
gero're arren umoria
billatu nairik beste batekin
joku eiteko bidia:
"Oraindik ere badaukat nekiñ
nik bai abillidadia,
eundaño iñork bear ainbeste
iñon probatu gabia."
- 11/ Kontu oriyek allegatzian
arren belarri-ertzeta,
beiratu ta obe dula pentsatu
tokatzen zayon gauzeta,
akaso ez du orduan jarko
iñon ainbeste izketa,
berriz e asten ba lan oriyetan
kaka egingo du galtzeta.

12/ Amabi bertso moldatu ditut
posible detan moduan,
umore pixkat jarri nayian
naiz ez onenak goguan,
erremediyoik nola ez baitan
denbora joan ta onduan,
zerritako're egokiyagoik
ez da izango munduan.

IKUSI: **Bertso-papera:** "Imp. Macazaga — Renteria", Macazaga-renean bertan jasoa.

(1954)

BERTSO BERRIAK
LEXOTI'K IRIARTE'I ORDAINTAN
JARRIAK

- 1/ Milla betzireun berrogei eta
amalaugarren urtian,
Jorraillaren ogei eta bost
zituen egun batian,
gure errira jendia eldu zan
bide guztiyak betian,
apostu aundi bat nola bai gendun
guk Oyartzun'go partian,
patxararikan ez degu izan
elkar probatu artian.
- 2/ Lenengo arriyai nik eldu niyon
eguardiko amabitan,
itxura utsakin deus ezin egin,
ari bear zan benetan;
Uztargillia geyago zala
nik aitortzen det egitan,
Lexotikua sayatu arren
txit intentziyo bizitan,
gaur arte beti batek galdu du
jokatutako guzitan.

- 3/ Federaziyo edo juezak
agindu ziguten guri
garaya zala eta ekiteko
egin bear gendun lanari;
Lexotikuak bizkarrera altxa,
Juanito Alkorta'k jarri,
sei milla kilon gora berakuk
plazan egin nitun sarri,
Uztargillian aurretik nitun
altxa irurogei arri.
- 4/ Eunka begira neska eta mutill,
gañera andre eta gizonak,
gu berriz borroka biziz
arriyarekin jardunak;
"oain moztik tronkuak" esan ziran
Alkorta nere lagunak,
bañan orduko nere nerbiyo
t'indar guztiyak zin jonak,
aizkora bear aundirik eztu
ala nekatuta donak.
- 5/ Arri jasotzen nere sayua
bukatu nuen orduan,
kontrariyuai beira egon biar
naiz ez obenak goguan!
puska gañera igotakuan
arnasik artzen ez nuan,
espaldatikan odola berriz
iturri baten moduan...
aizkorik ezin altxa nun eta
nik nola moztuko nuan?

6/ Iriarte ori etsai gogorra,
ustez nadukena anai,
ez nun pentsatzen ote naukan nik
bertsuk jartzeko ainbat gai;
iya oraindik tristatzen auten
orain abillena alai...
odola zuri motel dutela
kontatzen aitu aiz nun-nai,
geyago aizela pentsatzen badek
manoi-mano jarri ai.

7/ Neroni ez dit itzegin baño
bestek esanda det jakin,
pozik joko bat ingo lukela
orrek Lexotikuakin;
ortan pentsatu geyo pakerik
ez dagoela gurekin,
deskuido batez probatzen bagá
biyok plazan elkarrekin,
Uztargillikin nik in nuena
ik bearko dek nerekin.

8/ Motiborikan bai al zun orrek
gauz oik adierazteko?
orrelako bat aski izaten da
pake gaudenak nasteko;
nik baño indar gutxiyo dula
ark igual ez du usteko,
amar bat arri altxako ditut
ori bugitzen asteko,
esku bakarra naikua det
"Prantzesai" irabazteko.

9/ Eun kilo erraz altxako ditut
artutzen badet arnasik,
Iriarte orrek deus e ez du egin
pakekuak naste baizik;
nai duben eran joka zak, baño
ez dek aterako bazik,
kontari abill nekin joku bat
egingo ukela pozik...
Ugarte ortan gaur ez duk bizi
ni autsiko naun "frantzesik".

10/ Oyartzunen dan makalezkuna
Joxe Mari Iriarte,
ni orrelako gizon klasiak
ez naute bildurtzen bate;
buelo pixka bat badauka baño
abildadia aparte,
erri danian jarri liteke
motel guztiyen alkate,
erotik ainbat indarrez balu
egingo luke zerbaite.

11/ Gizon tranposuk zenbat arte dun
sarrerik ez pagatzetik...
bein bear eta diru gutxikin
etorriya zan etxetik;
kalerik kale guk zer emango
an ibilliya zan atzetik,
plaza zijuala —kontatzen zuen—
apustulayai launtzetik,
aizkora alkahuete bizkarrian
takillan ez ordaintzetik.

12/ "Prantzesa" orrek bueltak jartzia
ez al zuen ba merezi?
gelditu ez dakit noiz egingo gan,
orain egin gera asi;
pakian geunden gizon guztiyak
orrek egin gaitu nasi,
Iriarte eta nere berriyak
iñork nai badu ikasi,
paper bakoitza pezeta bana
zeñek nai ditu ikasi?

IKUSI: Bertso-papera: "Imp. Macazaga — Rentería", (Patxi Labandibar, Larria Ugaldetxo, Oyarzun).

(1954)

“AUPA SOROA”

- 1/ Mayatzaren erditik
egun bat geroago,
berrogei ta amairutik
urte bat geyago,
amar eunkorekin
milla egiña dago,
beste bederatzireun
erantsi arago,
ogeigarren gizaldin
i txapeldun ago.

- 2/ Arretetxetik entzun
nuan partidua,
riojanuan alde
zegoan dirua,
asieran buruz be
negoan mindua,
bukaeran jaso nun
beso ta burua,
semeari esanaz:
“Au dek, au, zerua!”.

- 3/ Partidua ikusi
zuanak txit au du,
asi orduko zala
Barberito auldu,
obearen onduan
egin bear galdu,
irabaziko zula
gaur batek esan du,
aizezko pelotakin
jokatu izan balu.
- 4/ Ez dakinak jakintzan
esatera nua,
pelotako jayotzen
dala emengua,
nola dan badakigu,
nork bere lekua,
berriz ere izango da
lodi ta megua
emen txapelduna ta
Rioja-n ardua.
- 5/ Orain nijuakizute
esate batera,
nolabait e sustraya
nai nuke atera;
gu joango bagiña
urez beste aldera
atomika nola egin
aidi erakustera,
laister giñake danok
sartuak lurpera.

6/ Jaunak, ez nadin joan
orren urrutira,
bakoitzak begiratu
bere barrutira;
naiz dala gañekua
azpiraño jira,
emen pelotariyak
beti izango dira,
kontuz zaitezte etorri
berriz gure errira.

7/ Txapela gelditu da
bere iturriyan,
naikua ondatu da
egon dan tokiyan;
berriro pozez dago
jayo zan kabiyan,
iñork ez du uxatuko,
ain dago mamiyan,
sortu bezela ilko da
au euskaldun erriyan.

8/ Eun da bi edo iru
gramoko pelota
lautikan zazpiraño
ezkerrakin jota;
era arrapatzian
barrenera bota,
Barberito negarrez,
jendea saltoka,
laurekin gelditu zan
oi ta bi tantota.

9/ Barberito jetxi da,
Soroa goratu,
txapelketa oberik
ez degu ezautu;
kanpoan zegoana
orra etxeratu,
berriz egingo zuan
emendik egatu,
Elduain-go semeak
ez bazun geratu.

10/ Onekin bukatzeko
artu det asmoa,
asi zaitelako
berotzen aspoa;
txapelduna ikusteko
badaukat gogoia,
berari emateko
zorion beroa,
danak merezi ditu
ta ¡AUPA SOROA!

Luis Rezola (1)

(1) Luis Rezola au, izengoitiz "Tximela", Tolosa-n jayo zan eta orain Billabona-n bizi da ez-konduta.

IKUSI: Bertso-papera: "GRAFICAS GORRITI".—
TOLOSA."

(1954)

**PELOTAKO TXAPELDUN SOROA-RI
BERTSO BERRIAK
GARMENDIA-K SORTUAK (1)**

- 1/ Milla bederatzireun eta
berrogei ta amalau urte,
kantuzko lanen atera nua
pelota dala bitarte;
gure errietako mutillak
berri txarrik ez dakarte,
ez nago lasai Soroa orri
bertso batzuk jarri arte.
- 2/ Ni banegoen ixilik bafía
barrenen ezin kabitu,
zer esanikan etzait paltatzen
antolatuko banitu;
Soroa orren azañarekin
aurten zein ezta arritu?
gure erriak oraindikan e
mutil yayuak baditu.

- 3/ Gizon prestuak agindu eta
partidua Eibar-en zan,
mutil yayu oyek ikusitzera
jendia pranko joan zan;
batak bestiai gogor egiñez
ordun jolasikan etzan,
Barberito-k zedukan txapela
gure errira etorri zan.
- 4/ Gure Soroa onena orain
zuzen dute erabaki,
nai ainbeste lan badauka eta
aberastuko da aurki;
goiko mallara igoa zaigu
naiz atzo baju izaki,
nor zertarako iritxi leiken
Jainkoak bakarrik daki.
- 5/ Gaur askotxo mintzatzen dira
auxe esaten dutela:
orrelakorik etzun egingo
izan balitza motela,
Barberito ona izango zan baño
sartu diote epela,
gure Soroak berekin dauka
pelotarien txapela.

6/ Kontu guztiak ago batetik
eztago esaterikan,
bañan nik auxe esan bear det
eta pozez beterikan:
Barberito-k egiñalak egin,
danak zitun alperrikan,
Soroa-k ogei ta bi tanto ta
besteak lau bakarrikan.

7/ Pelota-joku au euskaldunak
arrenbeste degu maita,
beste iñundik etorri gabe
ementxen sortua baita;
ta txapelduna riojanua
izaterik guk ez nai-ta,
orain Soroa jarri dalako
gu gabiltz orren alai-ta.

8/ Ogei ta zortzi urte berekin,
oraindik dago gaztia,
etxe-aldeak ere baditu
semea ta emaztia;
iñork pentsatzen etzuan orrek
Barberito bat austia,
Euskalerriko pelotariak
parragarriak ezta.

- 9/ Bizkar batean erri koxkor bat
Elduain izena duna,
emen jayo zan gaurko eguneko
pelotarin txapelduna;
aurten gaizki ezta portatu
Soroa gure laguna,
orra iritxi aspaldi ontan
danok eskatzen genduna.
- 10/ Tolosaraño etorri ziran
ta amarrak inguruan,
ta egindako ongi-etorria
ikusi egin bear zuan;
musika, soñu ta txistulari,
jendia ito-moduan,
poz ua zer zan esango duan
mingañik ez da munduan.
- 11/ Batere ez dago esan bearrik,
dago indar-berrituta,
erritar danok poztu gerade
iñun ezin kabituta;
berarentzako zaletasunak
dirade ugarituta,
zorion asko eman deyogun
ondo merezi ditu ta.

12/ Soroa orrekin euskaldun danak
pozez gabiltza igari,
zerbaitegatik mintzatu dira
emen oinbeste izlari;
auxe esanaz agurra eman nai
nik asi dedan lanari,
urte askuan eutsi zayozu
artutako izenari.

Bederatzi puntuan:

1/ Orain jarriko dizkat
puntuk bederatzi,
pixka bat onratzia
ez al du merezi?
bertso au entzun arte
ez joan igesi,
jendiari nai diot
kantuz adierazi:
kontrayuak ausi,
eztu egin gutxi,
danok degu ikusi,
txapela ta guzi,
onena bera dala
orra erakutsi.

2/ Arriaran irugarrena
ausi zun aurrena,
Zurdo de Mondragon-i
ibazi urrena,
berdin egin du Arri-
aran bigarrena,
gaur berriz bentzitu du
danetan onena,
Barberito izena
deitzen diotena,
gure gozamena
orain dagoena,
txapela etorri baita
Soroa-rena.

(1) Garmendia au, Domingo Garmendia da. Bertsolari gazte au Berrobi-n jayo zan, Tontola-bera baserrian, 1934-ngo Otsaillaren 3-an, eta orain bertan bizi da, jayotako baserrian lan egiñaz.

Bertso auek bi argitaraldi izan zituzten, eta, liburu ontan argitaratzeko, Garmendia-k berak ikutu txiki batzuk egin dizkie.

(1956)

BERTSO BERRIYAK

1/ Milla beatzireun berrogei eta
amaseigarren urtian,
Otsaillaren lendabizitik
dana bukatu artian,
illabetian egondu gera
jelate gogor batian,
ori goguan izango degu
bizi geraden artian.

2/ Illabetian elur ta orma,
ori bai zala fuertia,
azkar egin du kanpuan zegon
gauzaren errematia,
aize gogorrek sasoi zedukan,
nunbait zabalik atia,
egun gutxitan eragin digu
milloi askoren kaltia.

3/ Esan digute aizea ori
atera zala Rusitik,
gu bizi geran leku ontara
allegatu zan Frantzitik,
kanpuan zegon berderik ez du
ezer utzirikan zutik,
zenbait egunez kasik etzegon
ateratzerik etxetik.

4/ Otsaillaren aurrena arte
negurik ez da izandu,
dudarik gabe golpia ondo
preparatutzen egondu,
kanpoko gauzak ondatutzeko
errukik ez du izandu,
bere partiak egiñak ditu
asiya arren berandu.

5/ Rusiyakua zala aizea,
emendik pranko aparte,
onuntz etorri ta agintzeko
etzuan kupirik bate,
bera jarri zan gobernadore
bai eta ere alkate,
orreatikan ez du aldegin
danak ondatu bitarte.

- 6/ Makiña bat erori gera
irrixtatuta jelian,
segurantzirik ez degu izan
ibillitzeko birian,
elur ta orma egin dizkigu
biyok denbora berian,
diferentzirik ez degu izan.
egunez eta gabian.
- 7/ Beruak ezik otzak e bere
indar aundiyak baditu,
arbolari're begiratuta
nor ez da eiten arritu?
aize orrekin or egin dira
piñotei danak gorritu,
oyen puntarik ez dakit geyo
egingo al dan berritu.
- 8/ Larogei urte dituztenari
aritua naiz galdian,
orrelakorik len izan danik
akordatutzen al dian;
esaten dute pasatakuak
nola aztutzen baidian,
baleike bañan ez dute uste
oik bizi diran artian.

- 9/ Bisiestoko urtea degu
ontan artu duna parte,
oraiñ artian ekarri digu
mesede ainbeste kalte,
aurreko zarrak abundosua
izaten dala diyote,
ez dakigu zer pasatuko dan
dana bukatu bitarte.
- 10/ Otzak illak e bai omen dira
naiz zar eta naiz gazte,
neronek ez det ikusi bañan
gezurra danik ez uste,
egaztiyak e kanpuan illak
asko billatzen dituzte,
oraingoa au izandu degu
gogoratzeko ainbeste.
- 11/ Osasun onin ni arkitzen naiz,
ontan badaukat graziya,
ori degunak gutxiyenez e
ar zagun pazientziya,
miseriyaren ondorenian
baleike abundantziya,
eremituko al du Jainkuak
orain galdu dan guziya.

12/ Aizea ori allegatu zan
izugarrizko bolaran,
ormatu eta botill sagarduk
puskatu ditu ganbaran,
kristala egin oyan azpiyan
pixa zeguan oñalan,
negu onetan ikasi degu
otza aundiya nola dan.

13/ Botella pranko izan bear du
ormate orrek autsiya,
eta erari gozo on asko
ondata eta utziya,
jela urtuta sagardu eran
ai zer nolako graziya,
sinistatutzen ez da erraza
aurten pasa dan guziya.

14/ Lenago berde zeuden zelayak
orain dauzkagu gorriyak,
su emateko moduan daude
kanpo guziyak jarriyak,
ekaitz gogorak bukatu ditu
parotxak eta arbiyak,
pentsu utsakin nola mantendu
emengo bei ta ardiyak?

15/ Aziendarentzat zer miseriya,
nora bialdu jatera?
personak ere kontuak ondo
bearko ditugu atera,
gauza guziyak garestiturik
egun batetik bestera,
aurtengo ontan urrengorako
eskarmentatuak gera.

16/ Amasei bertso Ibarguenek
orra paperian jarri,
ondorenguak jakin dezaten
negu gogor onen berri,
uste gabian orlako gauzak
egiten dira etorri,
al dan ondona pasatutzeko
lagun zayogun alkarri.

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik ga-
bea.

(1956)

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Milla beatzireun urte pasa ta
berrogei ta amaseyian,
orma gogorra tokaturikan
Otsa-illaren labian;
Mitxelenaren kuadrilla zegon
egun ortan lan gabian,
orain bertsutan esango ditut
gauza abek nola dian.

- 2/ Egun orretan Bazan-Garaya-n
Lorentzoren notiziya:
Amorroyakin arbol botzeko
zala tratuan asiya;
erakutsirik nola zedukan
jendiaren eskasiya,
ari laguntzarren ara juan giñan
gure kuadrilla guziya.

3/ Fermin ta Itxetxo lendabiziko
bazkaldu ta ziran jatxi,
oyen urrena berialaxen
Mitzelena eta Patxi;
jendia asi zan maxiatutzen:
“orren fuldamentu gutxi!”,
arbola aundiya izanagatik
xutik ez genduan utzi.

4/ Kuadrilla ori Bazan-Garai-tik
juan zan osoro prestua,
arbola botzen asi orduko
sartu zan jende nastua;
Bordabi ezetz gañera igo
amar duro apustua,
ta ura ere aixa irabazi
oi zan laneko gustua.

5/ Arbola orrek ondua zuen
noizbait e sua egiña,
ta azalian kezko kapa bat
jarriya zeukan fiñ-fiña;
alaz guziz e Bordabi orrek
ara igotzeko griña,
apustua aixa irabazi arren
jetxi zan zikiñ-zikiña.

6/ Kristau maiteak, nere bertsuak
irakurri edo entzun,
arbola ua botzea jua zenak
zeñek beidatua bazun;
arbol bat bota bear zutelako
jendez betia Oyartzun,
Madriden ori in ber izan bazen
zer gertatu biar ote zun?

7/ Lanian asi ta beriala
Asaldi autobusian,
Amorroya ta Ibañez ere
orduan etorri zian;
soka bat eman biar zitzayola
seguratzeko klasian,
Itxetxok juanta amarratu zun
erdi altura pasian.

8/ Itxetxo ari soka emanda
lurrera jatxi zanian,
jende guziya zai zegon eta
azkar asi zan lanian;
soka berexi, gora luzatu,
danak intentziyo onian,
orri tiraka kuadrilla dana
gutxinez ordu betian.

- 9/ Batzuek aizkoraz txandaka eta
bestiak berriz trontzakin,
arbola aguro botzeagatik
zeñek zer egiñ etzekin;
mutill gazte bat arbol onduan
trabatuz bere galtzakin,
beko sasira iya eroiyan
iten zitun balantzakin.
- 10/ Arbola ori jarritakuan
eroritzeko segira,
makiñat jende esan bezela
bazegon guri begira;
esaten zuten: "Eroiko ote da
ori bear dan tokira?",
arbolan berri ez dakitenak
Oyartzun ortan badira.
- 11/ Arbola ori bota genduen
nausiyak nai zuen eran,
jendia eta erreminta're
bagenulakoz aukeran;
jendia zegon egun orretan
euntalako tankeran,
arbola busti zan ta bildurrez
berriz itxatxiko ote dan.

12/ Baso-jabiak, entzun zazute,
ez gera brometan ari,
arbolak biarko guk nai degun
toki artara erori;
juan daneko urte askuan
daukau segurantzaz ori,
ta arbol aundiyak botatzekuan
lasai abisatu guri.

IKUSI: Bertso-papera: "Imp. Macazaga / Rentería". (Macazagak berak emana.)

(1957)

KRISTAUAREN BIZITZA

1/ Bertso batzuek jartzera nua
kristauaren bizitzan,
gure artian mundu onetan
asko nola gabiltzan
ona uste ta gaiztoa izan,
bizi deabruen gisan
pekaturikan pekatu gabiltz
egonagatik eleizan.

2/ Kristau artean on eta txarrok
nola gauden naastuak,
gure Jaunaren aginduetan
danok ez gaude justuak,
ez dizuet nai esatea nik
izateko ba santuak,
baño bai ondo kunplitutzeko
Jaunaren mandamentuak.

3/ Gure gorputzen naigabe danak
pazientzian eruan,
gure Jesusek Golgota-mendin
sufritu zuan moduan,
projimuaren gorroto gabe
bizi gaitezen munduan,
damutuzerik izan ez dezaigun
eriotzako orduan.

4/ Besteai kalte, norbera gozau.
ola ez izan sekula,
diruagatik ez Jesus saldu
Judasek ein zun bezela,
kristau jantzita otso biotzaz
asko emen gabiltzala,
biotz biguña izan dezagun
gure Jesusek bezela.

5/ Jesusek zenbat sufritu zuan
gure pekatuakgaitik,
ala ere gure intentziua
pekaturakua betik,
gure ondasunak emen utzita
jun bear degu emetik,
interesatu agintaria
munduan izanagatik.

- 6/ Gure gorputza argala degu
ondo zaindu ezkeru,
gure gauzetan otz egon arren
egon animatik bero,
Jaunen saria zeruan degu
emen sufritu ta gero,
gure izatiak alperrik dira
anima galdu ezkeru.
- 7/ Mundu onetan kristau zuzenak
lotuak gaude kation,
fede santua gorde dezagun
kristau fiñaren artian,
Jaunak mundura botata gaude
konprobazio batian,
kontzientzia garbi dezagun
Jaunen aurrera juatian.
- 8/ Gure artian nasaitasunak
artzen dizkigu indarra,
bizi geranok daukagu emen
gurutza eraman bearra,
gure Jaunak jarrita dauka
dotriña bat ederra,
kristau geranok ango esana
daukagu egin biarra.

9/ Ezin leike iñork santutzat bota
munduan bizi gaienak,
enbidi eta gorroto txarrez
bizi gerade geyenak,
oinperaturik nola gabiltzan
Jaunen agindu onenak,
ez du zerurik irabaziko
ola bizitzen diranak.

10/ Gure arteko bizi-moduan
gauza bat dago tristia,
norbera baño geyago dala
gauza askotan bestia,
aurreko ori arrapo eziñik
gabiltz bizitza guztia,
emengo izateik onena degu
osasuna ta pakia

11/ Sarri naigaberik beterik dago
munduan gure gorputza,
ontzat artu bearra degu
gure gaixo eta gaitza,
falta degunok eskatu dezagun
Arantzazura laguntza,
Ama orrek emango dizkigu
grazi onezko bizitza.

12/ Zeru ederra inpernu txarra
ortxen daukagu aukera,
salbaziorik ez degu izango
gaizki bizitzen bagera,
gure anima zeruratuta
gorputz ustela lurpera,
irabazita guazen danok
eternidade guzira.

Félix VICUÑA (1)

Auzo-etxe (Narria-bekoa) Oñatiñ

(1) Nun jayo eta nun bizi dan eta gañerako
argibideak eskatutakoan, bi bertso auekin eran-
tzun zuan:

Milla bederatzireun pasa eta
amabosgarren urtian,
mundu ontara jayo nintzan ni
garagarrillen amazpian;
gora-bera asko ikusi ditut
oraindaño bitartian,
naigabe asko izanagaitik
osahunakin suertian,
aurrera ola jarraitzea nai det
Jaunak nai duan artian.

Berrogei eta zortzi urtekin
nago oraindik soltero,
urte oneitan ola egoterik
ez nuen asko espero;
gazte denporan ezkontuzeko
ibilli bai nintzan bero,
gauza ola pentsatuarren
ezkontzia beti gero,
garayan ez nuen ezer egin da
ola bearko onuzkero.

(1963-ko XII-2)

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabekoa. (Félix Vicuña-k berak bialdua.)

(1959)

**BERTSO BERRIYAK
LATASA TA LUXIAI
OYARTZUNGO LEXOTIK JARRIYAK**

1/ Milla beatzireun berrogei eta
emeretziko urtian,
aizkora-joku bat izan degu
euskaldunaren artian,
Donostia-ko zezen-tokiya
daukagun leku batian,
bi mutill azkar alkarren aurka
oso burruka fuertian,
patxararikan ez dute izan
alkar probatu artian.

2/ Jorraillaren ogei ta seya
lendikan zuten berexi,
egun ortan an gertatu zana
nai nuke adierazi,
aixkolari pixkorragorik
oraindik ez da ikusi,
azken aldera Luxia egin zan
pixkat bajatutzen asi,
sayatu faltik etzuan baño
biyak eziñ irabazi.

- 3/ Joku-klase au gure artian
askotan egiña baita,
euskal erriyan bizi geranak
nola ez genazke maita?
an baña joku eskasaguak
ikusten dira nunai ta,
nik biyok berdiñ txalotu nitun
geldirik egon ezinta,
Luxia zarrak galdu zun baño
lana galanki eginta.
- 4/ Gipuzkoatarrak aruntz juan giñan
gu kurajetsu eta bero,
egi jator bat aitortu nai det
ontara geran ezkerro,
damu izatia alperrik baita
denbora juan eta gero,
Luxia atzera gelditutzerik
askok etzuten espero,
motorra ere erre egiten da
lan geyegi eman ezkerro.
- 5/ Jokua orrek etzuen merezi
ikusi gabe uztia,
bi mutill aubek Donosti ortan
egindako egur moztia,
alkarri amur eman nai ez ta
ura aiera tristia,
nik biyok berdiñ txalotu nitun
nola bat ala bestia,
Gipuzkoarrak galdu zun baño
biyok e txarrak eztia.

- 6/ Naparra lanian ikusitako
zenbaitek esan genduan:
“gure Jainkuak len olakorik
izan ote du munduan”,
orrek egurra ebakitzen du
zerra makinan moduan,
aundiyak txiki gelditzen dira
Ramon Latasa'n onduan,
odol beroko Azkoitiarra
orra nola utzi duan.
- 7/ Beatzi illabetez preparatutzen
egin dute zenbait sayo,
oraingu ontan Gipuzkoarrari
eskasiyan irten zayo,
ez gendun uste Latasa ori
zegoenik orren yayo,
ez det esan nai Luxia zala
aixkolari txarra jayo,
sasoi duenai bere garayan
barkatu egin bear zayo.
- 8/ Lenago iñoiz ez bezela or
bete zaigu zezen-plaza,
ikustearren Gipuzkoa ta
Napar aldeko jolasa,
amalau enbor kana erdikuak,
beste bi kanetik pasa,
oyek moztuta Sunbilla-kuak
lasai zedukan arnasa,
urte askuan sasoya orrekiñ
izan zaitia, Latasa.

9/ Apustu ori etzala fiña
zenbaitek esaten dute,
nik ez det oso xinixten baño
askok ala esan naute,
tranpa aundirik izandu danik
etzait iruritzen bate,
Latasa orrek eun da amabost
minutu zituan bete,
baño lenago moztuko zitun
beartu izan balute.

10/ Denbora asko pasa dutela
askok daukate ustia,
ola esantako berriket'oyek
arrazoikuak ezta
lan zallak ziran ta orgatik dago
ainbesteraño kostia,
ezin leiteke amasei enbor
denbora gutxiz austia,
zer uste zuten, egur gogorra
gazta bezela moztia?

11/ Latasa orrek aixkorarako
talentu berexa badu,
oraiñ artian beti txapeldun
egiten zaigu azaldu,
plaza guzitan bera nagusi
joko bat ez digu galdu,
nere iritziz merezi du ta
orgatik nai det goraldtu,
gure Jainkuak urte askuan
emen edukiko al du.

12/ Pozez txoratzen utzi dezu zuk
an izandu dan jendia,
zuri begira arriturikan
egondakuak badia,
Sunbilla-n degu aixkoları bat
arronka askorik gabia,
aunditasunik ez du azaltzen
baizikan umildadia,
obe genduke euskal erriyan
Latasa asko balia.

IKUSI: Bertso-papera: "Imp. Macazaga — Rentería" (Antonino Pagola, Ernani).

(1959)

BERTSO BERRIAK
ETXEBERRIA'TAR SEGUNDO'K
JARRIAK (1)

1/ Milla beatzireun berrogei eta
au emeretzigarrena,
poz ta atsekabez bertso batzuek
jartzeko ari naizena;
bi urte ontan arnasaz ezin
aserik naukan barrena,
orain eskerrak emanaz nua
Ama Zeruko arena.

2/ Ama maitea det biotzean
ezpañetan da bertsuian,
alare ezin nezake esan
ark zenbat ikusi zuan;
besteren besoetan zintzilik
miñez bi urte osuan,
alare danak onez eraman,
ezaguera ona ark zuan

3/ Gaitz gogor batek arturik zeuzkan
gorputzan sentidu danak,
ezurak miñez puskatu biar,
urtu ber buruko munak;
nola ez giñan penaz biziko
ainbeste maite gendunak?
denborarekin iritxi dira
Jesusen esku legunak.

4/ Orra Ilbeltzaren emezortziyan
aingeruen abixua,
egun artan zan nei azkeneko
luzatu zidan muxua;
gora begira jarri zitzaigun
zirudiela uxua,
andik ordu bat baño lenago
il zaigu ama gaixua.

5/ Ama maitea, zu zefien ona
izandu ziñan munduan,
arnasarikan detan artian
nik izango det goguan,
ta erregutzen segiko diot
agindu nizun moduan,
ia berriz e izaten geran
biyok alkarren onduan.

6/ Mundu txar onek ordu estuak
mundutar danentzat ditu,
iñungo miñik ez degula ta
ez gaitezela arrotu;
ta arek esan zizkigun ayek
zintzo betetzen sayatu,
bere onduan egingo digu
guretzat ainbeste leku.

7/ Eriyotzaren atzapar beltza
ez dabill makal-makala,
jakiña dago egunen baten
gu're orrentzat gerala;
ez jakin arren noiz izango dan,
ain gutxi nun eta nola,
danok dakigu lentxo gerotxo
ori seguru dauala.

8/ Ikusirikan mundu onetan
zer gurutz-bide daukagun,
eta gañera au bukatzeko
ondoren zer datorkigun,
negargarrizko baillera ontan
dauzkagun bi-iru egun,
onuntz zertara etorri giñan
kontuk atera ditzagun.

9/ Zenbat guraso eta lagun zar
mundu ontatik jua da,
or ikusten da guretzat ere
badatorkigula txanda;
guk baño leno dauka Jesusek
gure kontuk eramanda,
ura ez degu engañatuko
“gu onak gera” esanda.

10/ Danok dakigu gure bizitza
luzarokua eztana,
lur triste ontan eman biar du
gure arnasak azkena;
gero damutan ez da biziko
orain zintzua izana,
lagun zaiguzu onak izaten
Zeruko Ama laztana.

(1) Etxeberria'tar Segundo Errezill-en jayo zan eta orain Zarautz-en bizi da.

IKUSI: Bertso-papera: "Imprenta Martiarena — Azcoitia". (Patxi Larrañaga, Zarauz.)

(1960)

BERTSO BERRIAK
MUTIL ZARRA TA NESKA ZARRA

Juan Azpillaga-k mutil zarrarenak
Juan Mugartegi-k neska zarrarenak

Mutil zarra

Urte batzuek pasa ezkerro
Ezta izaten lotsarik
Gaurko kaleak ikusten dira
Neska zarrakin beterik
Itxura danez eztadukate
Lenako zarren legerik
Zer darabiltzu sasoi orretan
Gona motz motzak jantzirik.

Neska zarra

Atzerritikan moda berriak
Ekartzen ditugu errira
Ta mutil zarrak engañatzeko
Kontuak auexek dira
Ikusten ditut oso zartuak
Dotore jantzitzen dira
Orregatikan zu beti zabiltz
Neri atzetik begira.

Mutil zarra

Begiratzeak kunplitutzen du
Mutil zar on baten gala
Zuk badakizu zuek baño askoz
Onrauaguak gerala
Ta neska zarrak ortxe dabilta
Zer egin eztakitela
Auts ta pinturan gastatzen dute
Aste guztiko jornala.

Neska zarra

Mutil zar onek tentatutzen nau
Sarritan ames gozotan
Onenbesteko trasturik ezta
Sortu neronen auzotan
Oker zabilta nere ondoren
Egin dituzun pausotan
Zu baño askoz gaztiaguak
Ibiltzen ditut besotan.

Mutil zarra

Gezur batzuek esanda emen
Mutil zarra nai engaña
Gaztetutzen da pintaturikan
Atzazkal eta ezpañia
Eztaki nora pausua bota
Ain jarritzen da apaña
Berandu samar akordatu da
Oindik ederra da baña.

Neska zarra

Zartuta gero ezta izaten
Orretan ilusiorik
Apaindutzeko nik eztet artu
Sekula ofiziorik
Len ederra dan batek eztauka
Ondutzeko desiorik
Mutil zar onek besterik eztu
Olako desafiorik.

Mutil zarra

Lenago etzan orrelakua
Mudatu da azkenian
Gabaz kalera ateratzeko
Preparatu egunian
Denbora gutxi pasatutzen du
Bere etxeko lanian
Gure errian zelako festak
Au ezkondutzen danian.

Neska zarra

Gazte giñala ibili giñan
Ezkondutzeko asmotan
Orain olako gauzarik eztet
Iñoiz neronen gogotan
Mutil zar auek siñestu danok
Oker dabilzala ortan
Ni ez nintzake zugaz egingo
Gaizki bizi izatekotan.

M. Z.—Len gazteak giñan ta
Zartuak gerade.

N. Z.—Oraindik eztaukagu
Ainbeste erade.

M. Z.—Baña gera eztimazi-
o larregi gabe.

N. Z.—Bakarrik bizitzia
Askoz degu obe.

N. Z.—Iñoiz izandu ditut
Ezkontzeko deiak.

M. Z.—Baña beste batera
Buelatu begiak.

N. Z.—Ortan eztira izango
Iñoiz gure jaiak.

M. Z.—Len etzan baña edertu
Du au pinturiak.

(1960-garreneko iraillan, Bilboko zezen-plazan,
Bizkaiko azken txapelketa nagusian kantatu zituz-
ten bertso auek.)

IKUSI: **Bertso-papera:** "Gráficas "Sigma" —
Bilbao". (Alfonso Irigoyen-ek bialdua.)

(1960)

BERTSO BERRIYAK
LESAKA-KO ARANBURU-TAR
DABID-EK JARRIYAK

1/ Milla bederatzi eun eta
irurogeiko urtian,
Ameriketan gertatutzen naiz
ta Nevada-ko partian;
bertso batzuek jarri-gogua
gogoratu zait golpian,
esateagatik artzayan isto-
riyuak nolkuak dian.

2/ Artzayak ondo bizi gerala
askok ala dute uste,
nai den bezelko janaria ta
jornala beste ainbeste;
baiñan ori esaten dunak
bururik ez dauka bate,
lan ona balitz amerikanuk
eurek egingo luteke.

3/ Amerikano bat oraindikan
nik ez det artzai ikusi,
iñork nai ez dun lana egiten
gu euskaldunak gaudezi;
alakoen batin geonek ere
egin dezagun igesi,
geure buruen jabe gerala
ayeri adierazi.

4/ Artzayan istoriyuak dira
kontatutzeko tristiak,
bere onduan kato-koyote
legoyak eta guztiak;
danan izena ez dakiat ta
beste gañeko piztiak,
emen irabaziko dolarrak
ez dira gutxi kostiak.

5/ Mendiya ok nolakuak diran
batek ezin laike esan,
arri tartian ezin pasatuz
miña artutzeko gisan;
asko jendeak ikusko balu
zer lekuetan gabiltzan,
esango lute emen ez dala
Jaungoikorikan izan.

6/ Artzai-etxea nolakua dan
nik esango det garbira:
toldo-pedazo bat lau kuerdaz
lotua lau tokira;
gero txutikan egon dediyen
ziri bat jarri erdira,
artzayantzako adelantuak
orrelaxekuak dira.

7/ Salto ederra egin genduen
dolarra orrengatikan,
geure gustora etorri giñan,
iñork ez dauka kulpikan;
bañan iñork etor nai badu
pensa dezala benpikan,
emengo diruk biltzen dirala
palarik gabetanikan.

8/ Nere moduan etorrikua
Europa-tikan asko da,
urtiak aurrera duaz baña
oraindik bada denbora;
alako batin bolta gaitia
len jayo giñan xokora,
eta mendi zarrok danak utzi
amerikanun kontura.

- 9/ Ontaz gañera mendi urrunin
artuko bagendu miña,
edo bestela gaitza txarren bat
geunek sendatu eziña,
bertan il biar anparo gabe,
ori daukagu jakiña,
lana ontatik libratzen giñan
abetsak izan bagiña.
- 10/ Iñork eztaki ardiyan lanak
zeñen gauza txarra duen,
asko artzaya burutatikan
txarto ikusten da emen;
neronek ere nik esango det
iñorrek esan baño len,
aspaldiotan txarto nabilla
aundiya iduki arren.
- 11/ Oso Nortera egonagatik,
naiz Nevada-ko partian,
bero galantak botatzen ditu
negua asi artian;
gero berriztik nolako otzak
primabera bitartian,
bañan guztiak sufritzen dira
osasuna degunian.

12/ Asi dedana bukatutzeko
au da amabigarrena,
apelliduaz Aranburu ta
Dabid da nere izena;
iñork esango balu, gezurra
dala nik jarri dedana,
gizon orrekin konponduko naiz,
bialdu neronengana.

IKUSI: Bertso-papera: "IMP. GARAYOA. — P. CABALLERO, 10. — PAMPLONA, Dep. Legal NA. 13-1961" (Ez nuan kontuan artu, zeñi jaso nion.)

(1962)

GIZON DA ANDRAREN FALTAK

- 1/ *Gizona*: Ezkondutako bizi-moduan
jarri bear ditut kantak,
esango ditut gizurrik gabe
oso egiak galantak;
ondoren berriz entzungo ditut
arrazoi gabeko bueltak,
kontatuko'itut zelan diraden
nere andriaren faltak.
- 2/ *Andrea*: Uste al dezu zeu're zerala
bate faltarik gabia?
lanian baño jan-edanian
zure abilidadia;
zu baño gizon formalaguak
errian geyenak dia,
au artu eta zer suertia,
utzi dionak obia.

3/ *Gizona*: Uste gabe etxeratu naiz
ni lengo egun batian,
nere barrua asko poztu zan
gauza onela ikustian;
emakumeak tranpa guztiak
egin bear ditu ostian,
nere andrea arrapatu nun
botillatik zurrutian.

4/ *Andrea*: Zuk eta nik bizi-modua
eztaukou oso berdiña,
edadietan komenentzi au
or dako zu zuk guraiña;
esne-pixka bat eraten e ni,
ori da ikusi eziña,
zugatik neu zaintu ez banitz
ilda neguan antxiña.

5/ *Gizona*: Jende guztia engañatzen du
gizur galantak esanda,
sarri askotan merienda ordez
entzuten degu demanda;
ez dakit nola egoten dan au
asarre edo edanda,
naikua diru ekartzen dizut
etxian lasai egonda.

6/ *Andrea*: Etxeko lanik gizakumiak
batere ez du ikusten,
garbitasun ta gure jatordu
eta erropa zar josten;
ganadu, ollo, txarri eta ume
oyeri jaten ematen,
illunabarrez tabernarako
majo zera zeu libratzen.

7/ *Gizona*: Gizurrarekin engañatutzen
ibilliko zera alperrik,
gizonarentzat izango dira
iñun badago lan txarrik;
fabrikan eta baserrian
egin bearra bakarrik,
zeure gizona galduagatik
ez dezu egingo negarrik.

8/ *Andrea*: Zeuk ere sarri faltatzen dezu
Jaunaren mandamentuan,
nola dabillen, erri guztia,
egon zaitezte kontuan:
olako gizona etxean baño
oba da tokau kanpuan,
andrea etxean negarrez eta
berau tabernan kantuan.

9/ *Gizona*: Andrian tranpak nola diradeu
nago ondo igarrita,
bere gorputza ondo zainketan
dago ederki ikasita;
jan gabe ez da geldituko au
debillidarez jausita,
etxeke olluak zuk jan zituzten
tranpaz gaxorik jarrita.

10/ *Andrea*: Tranpaz gaxorik egon naizela
zuk esan dostazu ori,
emakumien samintasunik
etzaio eltzen gizonari;
neuk jateko daukan apurra
eman bear umeairi,
naigabe asko sortutzen zayo
guraso dagon amari.

11/ *Gizona*: Nere andreak matralla gorriak
eta gizena gorputza,
etxean diranak bedorrek jan da
neri sarri plato utsa;
oyek guziok ez dira ezer,
lanerako ez da gauza,
zugaitik noizbait umearekin
etorriko al zait laguntza.

- 12/ *Andrea*: Bata bestia insultatutzen
alper alperrik gabiltza,
andean ona ikusi eziña
zuk dadukazun gaitza;
familia azi, al dana egiñ,
dijua nere bizona,
gure umeak galduak ziran
ama izan ez balitza.
- 13/ *Gizona*: Egin bearretan baldin banago
sarri zuri faltatua,
gauza samurra konfesatzia
beti besten pekatua;
esandakotan faltatu badet
nago ondo damutua,
emendi aurrera eramango det
bizimodu oso justua.
- 14/ *Andrea*: Orain al zatoz burua makur
barkaziua eskatzen,
zu asi ziñan lendabizitik
gauza askotan faltatzen;
andriak zerbait faltatutzia
pena al zenduan artzen,
nik ere zuri barkatzen dizut
ondo konpondu gaitzen.

Félix VICUÑA
(Auzo-etxe) Oñati-n 1962-an (1)

(1) Bertso auek egilleak berak makinaz idatzita bialdu zizkigun.

(1963)

BERTSO BERRIAK
ARRUIZ'KO TXIKIARI
ALBIZU'K JARRIAK (1)

1/ Milla igaro eta
bederatziregun,
irurogei ta iruba
nola etorri zaigun;
aurtengo urte ontan
Ilbeltzan amairun,
Tolosa'n zezen-plazan
zer ikusi gendun,
olakorik mundun
guk uste ezkendun
bazanikan iñun,
ni arritu niñun,
bertsoz zabaldu nai det
zer egin zendun.

2/ Urte garai onek du
neguan biotza,
mendian elurra ta
beian izotza;
seitik bera jetxiya
zeguala otza,
urrutitik entzuten
zan aizkora-otsa
badaukazu gatza,
baserritar latza,
langille garratza,
etzaude beatza,
orrela betetzen da
emandako itza.

3/ Latasa da aizkolari
onenetakua,
berarekin egiña
zendun jokua;
alkar ondo neurtzeko
itxura moukua,
etzeguela ondo ta
esaten meikua,
azita zankua
zeukala naikua
sifialetakua,
aizak, mutikua,
nai dekenian altxa
nik botatakua.

4/ **Biyon** lana bakarrik
egingo zendula,
oraindikan ainbeste
indar bazendula;
guk ere ezin ukatu
ikusi gendula,
Jaungoikuak emanda
osasuna zula,
zu etzaude aula,
ta jakin zazula
opa dizugula
izan dezazula,
ederki egin dezu
ibeajondeizula!

5/ **Arruiz'ko Txikiya** da
Juan Kruz Azpiroz,
ikaratzen eztana
otz eta beroz;
bestela etzan asiko
orrelako giroz,
asko ala esaten
ari dira geroz,
begiratzen gogoz
egonduak zorrotz
erriko ta arrotz
gelditu gabe motz,
munduan baldin bada
egin lezake ots.

6/ Ogei kana erdiko
enborrak mozturik,
korrika ekin ziyon
tximistak arturik,
esan dan aballakin
oso izozturik,
gorputz guztiya jarri
zitzayon ozturik,
pultsua nasturik,
pausuan juxturik,
kopeta bezturik,
ialako posturik!
orren gogorrik eztu
egin apusturik.

7/ Lan oyetan nagusi
degu Arruiz-kua,
badirudi amak egin
zula arrizkua;
aizkolari ona ta
ioi da oñezkua!
atzera utziko luke
orrek egazkua,
arnasaz preskua,
lasaya aspua,
mutil tajuzkua
eta buruzkua,
asko dezu ikasiya
eta zerezkua.

8/ Inork aditu al du
iñun oraindikan,
bateonbatek nunbait
egin dunikan,
orduba aurka dula
olako lanikan,
ezin sinistu gendun
beran esanikan,
zerbait e lendikan
jakiñagatikan
napar semerikan
sortuko zanikan
oi bezela zailduba
dagon gizonikan.

9/ Gerok ikusiya da
begiyen aurrian
orren lan egitia
plazan erdian;
enborrak izoztuak
zeuden egualdian,
besterik ezta izan
gure alderdian
be ta goierrian
bakar bakarrian
orren indarrian
ain lan gogorrian
marka bat jarri dunik
Euskalerrian.

10/ Berrogei ta emezortzi
minutuan eunda
bukatu zituala
jakitia on da;
denborale arekin
naikua egin zun da,
etziyon ajolarik
sasoya zeukan da,
mutilla irten da,
ortxen ezagun da,
ijendian burrunda!
an geunden barrun da,
atera zan guztiyoi
agur egin da.

(1) **Guillermo Albizu:** Ernani-n jayo zan, eta orain Tolosa-n bizi da, bertan lan egiñez.

IKUSI: Bertso-papera: "Imprenta Ayestarán — Tolosa", Alkiza-ko Etxesagasti baserrian jaso.

BERTSO BERRIAK
ASTRONAUTA ETA ATOMIKARI

1/ Astronautakin gabiltza oraiñ
betik notizi berrian,
amaika bider nik galdetzen det
burutik nastu al dian;
gelditu gabe or dabilz danak
astian eta jayian,
Jaungoikoik danik sinisten ez ta
zerura igo nayian.

2/ Atomikaren bonba zatarrak
zeruetaño jasuak,
alde batetik amerikanok,
beste aldetik rusuak;
kupirik gabe iltzen dituzte
aurrak eta gurasuak,
juiziorikan batere ez duten
persona peligrusuak.

- 3/ Atomikaren bildurrez beti
naziok eta probintzik,
nagarmendua dago ederki
nola ez duten biotzik;
nere partetik beñere ez diat
batere sinisten itzik,
ez dago errez oyei ematen
gizon jatorraren antzik.
- 4/ Corea-tikan asi ziraden,
Congo Belga-tik barrena,
Argelia-ko erria ere
puskatu dute urrena;
alemanak e ikusten ditut
eskarmentauta daudena,
oinbeste jende ola iltzia
orrek ematen du pena.
- 5/ Mundu guztia arrasatzeko
dirade betik prestatzen,
hidrojino edo atomikakin
dabiltza betik jostatzen;
persona oyen pensamenturik
batere etzat gustatzen,
mundun erdia gosek iltzen da
oyek oinbeste gastatzen.

6/ Gañera etzaye bate gustatzen
konseju on bat artzerik,
bonbaz ez dute arreglatuko
munduko diferentzirik;
askotan ez da errez bukatzen
gizonan pazientzirik,
biotz onakin juzgatzen bada
ez dute kontzientzirik

7/ Garai onian gu ezkiñaden
etorriak mundu onta,
gauza oberik ez izan arren
pake santua da falta;
naiz lañuetan gora igo ta
bonba beltz aundiak bota,
gerra errezik ez da beifñere
demonioaren kontra.

8/ Pakean billa abiau arren
betik bidian gelditu,
zenbait personan konsejurikan
iñork ez du nai aditu;
rusuak berriz munduko eskiñak
danak beretzat nai ditu,
Kennedy-k ere bolara ontan
eskuk bete lan baditu.

9/ Egirik ez dau pagatuta're,
gezurra berriz debalde,
sendatzen ez dan miñ gaizto orrek
azpian artuak gaude;
gizon jakintsuik gaur ez al dagon
betik egiten det galde,
Jaun Zerukuai itz egiteko
pake santuaren alde.

Felipe Barandiaran (1)

(1) Felipe Barandiaran au Beasain-en jayoa da, bañan orain Mejorada del Campo-n (Madrid) bizi da. Bertso quek berak bialdu zizkigun makinaz idatzita.

BERTSO BERRIAK
GUADARRAMA MENDIKO PUTRE BATI
JARRIAK

- 1/ Bizia kendu diot
pizti gaizto bati,
gauza onen asmotan
egon nitzan beti;
iñuiz nere idiak
utsegiñagaiti,
nere atzaparretan
eroi da orrati.
- 2/ Putre beltz aundi bat da
olako piztia,
aspalditik gendukan
onen albistia;
errian zabaldu zan
notizi tristia,
beartuak giñala
atiak ixtia.

3/ Lau metro pasak ditu
egotik bestea,
bildurra ematen zun
neurtzen astea;
iñork etzun pensatzen
ilda ikustea,
emengo artzayeri
ederki kostea.

4/ Aidetik egiten zitun
lurrera arrantzak,
artzayai estutu're bai
ipurdian galtzak
mokoa gogorra du ta
atzaparrak latzak,
onen diñe etziran
barrioko auntzak.

5/ Berreun da amar antzuma
zitun eramanak,
marroi tristia pranko
egiñ zuten amak;
orren diñe etziran
sortzen ziran danak,
goiko arri gañian
zer okela-janak!

- 6/ Lapurretan zedukan
primerako plana,
deskansurikan gabe
egiten zun lana;
mendian sortu leiken
piztik abillana,
bañan erori biar
gaizki dabillana.
- 7/ Aspalditik zeguan
anuntziatua,
artzayan sozidadiak
denuntziatua;
baldin izaten bazan
au arrapatua,
pozik izango zala
ondo pagatua.
- 8/ Zerbait egiñ bear nuala
jarririk kasketan,
Agoztuan seya zan
goizeko hostetan;
ez nion disparatu
bromako ustetan,
kartutxo bat bete plomo
sartuyot estetana.

9/ Osorik etzitzayon
gelditu esterik,
etzuan orduan an
eskatu besterik;
berak etzun uste an
ezurak austerik,
eta tripan zer zeukan
nei erakusterik.

10/ Bapo zurrupaturik
auntz eta ardiak,
etzion gaitzik egiten
aragi garbiak;
danak bildurturikan
zeduzkan jarriak,
zer poza artu duten
inguruko erriak!

11/ Artzayan sozidade oi
dago Guadarrama-n,
nik artu eta zuzen
bertara eraman;
beriala asi ziran
kontu eta teman,
aitzenen ez dirate
zentimorik eman.

12/ Berreun da geigo antzuma
or arrapatua,
jende guztia zegon
oso kejatua;
lapurreta-klase oi
dau debekatua,
biziaz pagatu zun
bere pekatua.

13/ Eztadukat nekerik
oik emana jaten,
apenas tripatikan
enredatu nauten;
nerekiñ ondo portatu
diralako aurten,
lagundu bear diet
beste urte baten.

Felipe Barandiaran (1)

(1) Bertso auek ere egilleak berak bialdu ziz-
kigun makinaz idatzita.

MENDIGOIZALEAK

Goizean jeiki oetik arin
ase ondorenean loz,
atera gera geuren etxetik
mendiratutzeko asmoz;
bide luzeko neke guztia
emen biurtu zaigu poz,
zeruak ere gertuagoan
dagola dirudi askoz,
bakarrik zauden, mendi maitea,
zu alaitutzera gatoz.

Iztueta

Lazkao-ko mendizaleen (Grupo Ezparru del Oar-
gui — Sección de Montaña — Lazcano) txarte-
lak, alegia mendi-muturretan uzten duten txarte-
lak, bertso au dakar atzeko aldean

BERTSO BERRIAK
IBAI-ERTZ'EK JARRIAK (1)

1/ Orra bertso paperak
neronek atera
neronek atera,
ez danikan ez nator
bertan esatera.
Neskatx polit batekin
amorez asera,
naiz gero berak saldu
Judasen antzera,
txalogarria ez da
Pepitan jokera.

2/ Tratatzen asi giñan
pozikan gaztetan
pozikan gaztetan,
itzak pasa giñuztan
erriko festetan.
Esan nion: "Naukazu
amorez benetan,
ez nazazu eduki
olako penetan".
Baietza eman ziran
orduantxe bertan!

3/ Urrengo jaierako
egin gendun plana
egin gendun plana,
nai baño obetogo
atera zan dana.
“Amoriyua daukat,
Joxe, zuregana”.
Ez al-da au Pepita
esan zenduana?
Mingañez legun bañan
azpitikan lana.

4/ Sei illabete barru
Donostira jua
Donostira jua,
koziñan eta josten
ikasi nai zua.
Beste asmo batzuek
ziñuztan buruan,
susmo txar bat neronek
laixter artu nuan...
Amaika orrelako
badabill munduan!

5/ Iganden alkarrekin,
karta astelenez
karta astelenez,
astero ez joateko
neronei esanez.
Gastu asko zegola
igandero juanez,
ta bera leporaño
zebillela lanez,
askoz obe nuela
puxka baten jun ez.

6/ Karta artu orduko
nere errespuesta
nere errespuesta:
"Pepita, barru ortan
maitasunik ezta.
Txit fiña etzerala
lendik nuen kezka,
bertan bukatzen degu
amorezko festa...
Beste bat billatzeko
libre zaude, neska!!!".

7/ Donostin jakin ditut
Pepitan berriak
Pepitan berriak,
benetan gerta dira
txit penagarriak.
Dirutan erosi du
gizon elbarriak,
amerikano maltzur
engañagarriak...
Neskatxa galdu digu
diru-egarriak!!

8/ Agur bein betirako
gure maitasuna
gure maitasuna,
zerorrek ala nai ta
bukatu dezuna.
Nere konsejua da:
"Ez izan lizuna,
animak izan dezan
bere osasuna,
diruz etzazu saldu
zuk garbitasuna!!".

9/ Munduan zertarako
engaño ta gezur
engaño ta gezur,
zer bukaera degun
badakigu ziur.
Urte batzuk pasata
danok auts eta lur,
edertasunak utziz
munduari agur!
Garaiz izan gaitezen
Jainkoaren bildur!!!

10/ Zenbat tranposa dagon
oraingo munduan
oraingo munduan,
bizi nai lutekenak
markesa moduan.
Txorakeria gañez
dezute buruan
ezin errenditurik
langillen onduan.
Ez dezute pentsatzen
eriotz orduan!!!

11/ Pepita arro dabill
algara ta parrez
algara ta parrez,
laixter bide ortatik
seguro negarrez.
Asperten asi bai da
indiano zarrez,
naiz gañezka ibilli
zillar eta urrez...
Diruz egoki bañan
maitetasunik ez!!!

12/ Azken bertsoan agur
egiñik Pepitai
egiñik Pepitai,
egiak esan eta
gelditzen naiz lasai.
Arpegi emateko
prestu nago nun nai,
deitu nai dezunean
joango nazazu, bai.
Joxe gelditzen zaizu
abixu orren zai.

(1) **Jesus Lete Sarasola**, "Ibai-ertz", Isasondo-ko Erriko-etxean 1921-ngo Agoztuaren 27-an ja-yo zan, senideetan amargarrena ta azkena.

Amalau urte zituala, "parálisis infantil" deri-

tzayon gaitzak arrapatu zuan, eta gaur makil baten laguntzarekin ibilli bearra du.

Ez da bat-bateko bertsolaria, ikasia baizik. Egutero, batz bestea, ordu laurden bat pasatzen du bertsoak kantari ta zirriborro batzuek egiten.

Lendabizi bertso-paperak saltzen Erauskin Errotaria ezagutu zuan, bere jayotz etxeko ostatuan, zortzi-amar urte zituala. Amalau urte zituala, euskal jai-aldi batean, bere errian, Txapel, Zepai ta Artzanberria artzaya izan ziran lenengo ikusi zitan bertsolariak.

"Ibai-ertz" izengoitia, jayo ta bizi beti ibai ondoan izan dalako artua du. Bere lanak "Arantzazu", "Goiz-argi", "Zeruko Argia"-n iñoiz ikusten dira.

Gaur egunean Isasondo-n ezkondata bizi da ofizialista lana egiñaz.

Bertso paper onek lenengo saria irabazi zuan, Euskaltzaindia-k 1963-gn. urtean antolatutako bertso-paper-txapelketan.

Emendik aurrera liburu ontan dauden bertso guziak, txapelketa ontara bialduak izan ziran.

Bertso-paper au moldiztegiaren izenik gabe azaldu zan.

BERTSO BERRIYAK
SEBASTIAN SALABERRIA'K
AMA EUSKERARI JARRIYAK (1)

- 1/ Ama Euskera maitagarriya
goratu nai det bertsoan,
anai-arreba biyotzekoak,
saya gaitezen lan ontan,
badakit nola mintzatzen diran
erderaz etxe askotan,
liburu berri onak ipiñi
danok sukalde txokotan,
oitura zarrik galdu ez dedin
gure lau probintziyotan.
- 2/ Ama Euskera biyotzekua,
lenago garai batian
oiturak zintzo gordetzen ziran
gure sorterri maitian,
pozez txoratzen egoten ziñan
baratzan lore tartian,
ta gaur negarrez ikusten zaitut
begiyak bete betian,
zure malkuak txuka ditzagun
guztiyok saya gaitian.

- 3/ Ama Euskera, iritxi dira
zuregana egun beltzak,
eta biyotza zulatzen dizu
zuri naigabe zorrotzak,
zure begiyak poztu ezifik
dauzkagu komeri latzak,
lore mardulak ziran tokiyan
sortu zaizkigu arantzak,
orrelakorik etzun merezi,
Amatxo, euskal baratzak.
- 4/ Ama Euskera, gertatu danik
guk ezin degu xinistu,
illunperatu zaigun argiya
ez ote liteke piztu?
gau eta egun negarrez dagon
Ama bear degu poztu,
anai-arreba biyotzekuak
danok euskeraz jolastu,
seaskatxuan ikasi giñun
lenengo itzak ez aztu.
- 5/ Ama Euskera, seme-alabak
jarri nai zaitugu alai,
nork du biyotza ez laguntzeko
negarrez triste dagonai?
gure lurrian ikusten dira
zenbait arreba ta anai
ikasi duten izkuntz ederra
ez dutela mintzatu nai,
aitak eta amak erakutsiya
etzagun aztu nolanai.

- 6/ Ama Euskera, zure onduan
billatzen degu atsegin,
al baldin bada zure esanik
ez genduke nai utsegin,
anai-arreba biyotzekuak,
egin dezagun alegin,
gertatzen geran toki guzitan
beti euskeraz itzezin,
ainbat baliyo duan izkuntza
beñere galdu ez dedin.
- 7/ Ama Euskera, aspaldi xamar
asiya zera erortzen,
ta berriz altxa bear dezunik
etzaizu iruditutzen,
anai-arreba biyotzekuak,
ez gera konturatutzen
Ama gaxua nola daukagun
beti negarrez urtutzen,
ez gera bere seme-alabak
ez badiyogu laguntzen.
- 8/ Ama Euskera, zuri begira
munduan zenbait euskaldun
galdetzen degu Amak negarrez
noiz arte egon bear dun,
maite badegu bere malkuak
lenbailen txuka ditzagun,
anai-arreba biyotzekuak
guztiyok egiñik lagun,
antsika dagon Ama gaxua
pixka bat poztu dezagun.

- 9/ Ama Euskera, galdetzen dezu
oitura zarrak nun dian,
garai batian goyen zeudenak
gaur arkitzen dira bian,
egun batian erori ziran
batere uste gabian,
eta geroztik ikusten degu
euskaldunen sukaldian
Ama gaxua nola bizi dan
negarrez bakardadian.
- 10/ Ama Euskera poztu dezagun
danok alkarri lagundu,
euskal baratza arlote dago,
bear genduke txukundu,
belar onaren tartian txarrak
oso gaizki ematen du,
ona indartzen saya gaitezen,
gaiztua zañetik kendu,
Amak maiteko ginduzke danok
ori egingo bagendu.
- 11/ Ama Euskera, etzazu uste
biyotz gogorra detanik,
mundu onetan gorrotorikan
iñorentzat ez daukat nik,
lagun urkua maite dezagun
bestela ez degu gauz onik,
ez det esan nai beste izkuntzak
guretzat txarrak diranik,
erderaz berdin mintza liteke
euskera aztu betanik.

12/ Ama Euskera, bia jo zendun
bein eroritzen asita,
lore tartian goxo zeundena
amildu ziñan sasita,
miñ artzen degu, zuk etzenduan
olakorik merezi-ta,
Euskalerrriyan zure malkuak
badatoz alde guzita,
ez ote gera gu esnatuko
Ama ola ikusita?

1963-ngo bertso-paper-txapelketan bigarren saria irabazi zuan bertso-paper onekin. Ez du jar-tzen zein moldiztegitan argitaratua dan.

1964 urtean, Agora-ren nobela-saria irabazi du, "Neronek tirako nizkin" deritzayon eta Aus-poa-k atera berria duan (Auspoa, 38) nobelare-kin.

(1) Sebastian Salaverria mundura sortu zan 1915-gn. urteko Abenduaren 26-an, Oyartzun-go partean, Elbitxuri baserrian. Gaur Donostiko Oriamendi ballaran bizi da ezkondata.

BERTSO BERRIAK
URANGA-K JARRIAK (1)

AMA ALARGUNA

- 1/ Jaungoikuari eskatzen diot
zentzuna eta indarra;
gogoratzian etorritzen zait
begi bitara negarra,
bost ume txiki azi biar da
dago amatxo bakarra,
ogei ta zortzi urte dauzka ta
orain il zaio senarra.
- 2/ Senarra azken arnasetan da
emaztetxua begira,
Jaunak emana aurtxo txiki bat
zeukan sabelan erdira.
Negar malkotan agur emanik
maitearen belarrira,
bi medikuak eraman zuten
aurra emateko tokira.

3/ Besarkaturik eman zioten
alkarri azken laztana.
Senarrak zion: Maite, bakizu
mundutik banijuana.
Gora begira errezatuaz
nere Jesukristo Jauna,
orra munduan utzitzen zaitut
bost ume txikiren ama.

4/ Emaztetxua aurra ematen
gaxotegi edo klinikan,
baño senarra etzegen ondo
ikusi gabetanikan.
Aurra eman da berriz e laiste
etxera eramanikan,
baño senarran ezpain otzetan
etzeuan zer esanikan.

5/ Bost urte zitun aundiñak eta
ordu-bete ez txikiñak.
Aurtxo txiki au besoan artuz
amatxon negar zotiñak!
Beste umetxoak au ikusita
daude tristetzen ekiñak.
Gauz ori zer dan ezin sinistu
ikusita ez dakiñak.

6/ Umetxo auen galdera au da:
Ama, gure aita nun da?
Da onek bere erantzupena:
Mundu ontatikan jun da.
Umetxo oiek negar malkotan
itz triste ori entzunda:
Aitarik gabe gelditu gera
ainbeste maite gendun da.

7/ Beren etxean aintxen daukate
aitatxon erretratua,
gau illuntzian izaten dute
eskutxuetan artua;
umetxo oiek amarengana
guziak besarkatua,
animan alde errezatuaz
errosario santua.

8/ Gabian zaude otoitz egiten
eta tristerik eguna;
zure biotza alaitutzea
guztiok opa deguna.
Ogei ta zortzi urte dauzkatzu
eta zera alarguna;
paradisuan gozaten dago
zuretzat zendun laguna.

9/ Zenbat errezu edo otoitz zuk
Ama Birjiñan aurrian,
ai!, pentsatuaz lengo laguna
ez daukazula urrian.
Zuk maitasuna gorde daizula
zeure biotz samurrian.
Sinistu gero, ai! poz guztiak
ez dira amaitzen lurrian.

10/ Ogei ta zortzi urte senarrak,
orra mundua amaitu.
Ikusitzen det zure biotza
ezin dezula alaitu,
mundu onetan kristau danok
Jainkuak maite bagaitu,
egunen baten zeru erdian
bereganatuko zaitu.

Eibar-en, Azaroaren 26-an. 1962

1963-ngo bertso-paper-txapelketan irugarren saria irabazi zuan bertso-paper onekin. "Eguren — Eibar" moldiztegian argitaratua da.

(1) "Manuel Uranga Lizaso Itziar-ko Azkonar-zulueta baserrian jayo zan, 1925 urteko Ilbeltza-ren seian. Eibar-en bizi da ezkondata; iru seme ditu. Bizikleta-fabrika batean lana egiten du. 18 urterako asi zan erriaren aurrean kantatzen ta iñoiz saritua izan da." (Juan San Martin jaunaren eskutitz batetik.)

BERTSO BARRIAK
PUJANAK JARRIAK (1)

1/ Gaur baserrian leiduten dira
tebeo eta novelak
bertsolariak izatearren
eskribitzeko epelak
len bertsoakaz saltzen zirean
pipa ta neurri kordelak
nik olangorik eztaukat baña
badodaz bertso papelak.

2/ Bertsolariak biotza eta
burua argi baditu
novelak baño egi obeak
bertsotan esaten ditu
kantari iñoz entzuten bozu
gogo onagaz aditu
eta papelik saltzen badauko
artu barik ez gelditu.

3/ Estudioak egiten ditu
gizon andi ta aldunak
ori barik be baditu andiak
gure erri zar kutunak
bertsolariai entzun gurarik
dagoz gure jakitunak
sarri esaten dituelako
liburuak ez ditunak.

4/ Lenengotatik esaten noia
erosle zeuk dakizuna
mundua txarto dagola eta
txarrago etorkizuna
jakituriak andiak dira
urria argitasuna
jainkokeriak egin gurean
galdu da gizontasuna.

5/ Jakituria gauza ederra
baldin badago zentzuna
baña ezpadago askozaz obe
jakituririk eztuna
gauz onak egin al izan eta
txarrak egiten dituna
zoritxarrean gizon ori da
zentzumbako jakituna.

6/ Gerraterako armak probatzen
dabiz milloiak erretan
eta gizonak goseak ilten
munduaren bazterretan
urrengo gerran jarriko dabe
lur guztia su garretan
orra or zer dan jakituria
badago esku txarretan.

7/ Gizonarentzat tamalgarria
bide txarra artutea
eta txarrago ori jakinda
bertatik jarraitutea
gizon bidean auxe daukagu
benetako birtutea
jakituri ta al izateak
onera biurtutea

8/ Andiak bere gogortzezpaitu
zintzotasunen esiak
argi andirik ezteutso egingo
jakin ta irabaziak
bada gizona argitzezpadau
Jaungoikoaren graziak
San Iñaziok esan eban lez
zer balio dau biziak?

9/ Aita Santua prestetan dago
Batzar Ekumenikoa
Agintariak noz dabe egingo
bakeen alderdikoa
anai artean naste barik be
badago traba naikoa
bear dan legez maitetuteko
Jauna ta lagun urkoa.

10/ Itargira be egin nai dabe
orain joan da etorri
gauz ori zeñek lenago egin
or dabiz zuri ta gorri
arrokeri ta fanfarroikeri
botatzen deutsez alkarri
baña zarrentzat gaztetasunik
iñok ezin dau ekarri.

11/ Gizonarentzat jarrita dagoz
munduan amar agindu
ta orreik zuzen betetuteko
Jaunak ein zun adimendu
txakurrak here gizonak baño
zintzoago betetzen du
lotsagarria gizonarentzat
txakurraz ezin bardindu.

11/ Mundu au dogu gizonarentzat
atsekabe ta samiña
baña apur bat onduko geunke
alkar maiteak bagiña
nai dana euki nai dana egin
ezin lortu atsegiña
bakarrik da ez damutzekoa
alkarri ondo egiña

13/ Mundu oneri ondo begitu
etorreratik asita
billos billosik egiten jako
asierako bisita
ta gero barriz nai eta bizi
urregorriaz jantzita
urteerea egin bear da
guztia bertan itxita.

14/ Bake santuan jagon gaizala
Jaungoiko alguztidunak
auxe da gauza eskatzen duna
gizon borondatedunak
gerratan alkar il barik bere
kontauak dira egunak
il ta juzgatu egin gaizala
bizia emon deuskunak.

15/ Bat edo bestek esango dabe
oba banengo ixilik
danari parka eskatzen deutse
gaur Pujanatar Basilik
etxe bat dauko bosgarrenean
Bilboko kale Tivolik
antxe nozue danok artzeko
ate ta beso zabalik.

(1) Basilio Pujana Zeanuri-n jayo zan, 1913 urteko Otsaillaren 27-an, Zulaibar baserrian.

1944 urtean ezkondu eta Bilbo-n gelditu zan bi-zi izatera. Gaur egunean taller bateko nagusia da.

1959 urtean, Zeanuri-ko bertsolari-txapelketan parte arturik, txapeldun gelditu zan, eta Bilbo-ko azken txapelketa nagusian ere kantatu zuan.

1960, 1961 ta 1962 urteetan ere parte artu zuan Bizkaiko txapelketan.

1963-ngo bertso-paper-txapelketan laugarren saria irabazi zuan bertso-paper onekin. Ez du moldiztegiaren izenik esaten.

BERTSO BERRIAK
JUAN MUGARTEGI ETA JUAN IBARZA-
BAL-EK JARRIAK (1)

ARDOZ BETEA ARDOAREKIN
BURRUKA

- 1/ —Ardozalea naizen meriyo
ez naiz probatu gabia,
ni bezelako guztientzat da
erari bat suabia;
urak ez gaitu ondo artutzen
matsaren zumua obia,
jakin nai nuke ardo onexek
nola daukan koloria.
- 2/ —Zeure denboran egin dituzu
sendo makiña bat trago,
zeure barruan sarri egoten
ni asperturikan nago;
burua argi agertzen zendun
lengoan baño lenago,
nere kolorea ez ikusteko
gizon au zela ote dago?

3/ —Ardo beltzakin gustatzen gera
sarri askotan geiegi,
eranak beti indarra galdu
ezin joan apartegi;
belarritikan gortutzen gera
baitare itxutu bi begi,
martxa orretan urte askotan
iñola ez nuke nai segi

4/ —Neronen eske aspalditxotik
sarritan etortzen zera,
goizian goiztik nola zabiltzan
oso ezagutzen zera;
illuntze aldean zearo erori
kale erdian lurrera,
nekin bazabiltz ola bearko
baita emendik aurrera.

5/ —Eranarekin indartzen dira
poliki gure barruak,
au pentsatuta egiten ditut
bildurgarrizko traguak;
baiña alare zuzen artutzen
ditut danaren karguak,
orrenbeste indar eztu izandu
gaur eran dedan arduak.

- 6/ —Etzaitut sarri zu ikusitzen
neregandik aldenduta,
zure barruan ia nago ni
derrigorrez beartuta;
bidian nauzu maiz erabiltzen
baso barruan sartuta,
alako baten utziko zaitut
sabel guztia lertuta.
- 7/ —Gaur ere asko erana nago,
nago erdizka asiaz,
eta oraintxe aurkitutzen naiz
neure jeniyo biziaz;
besterik gabe bildurtutzen naiz
ardo auxe ikusiaz,
ura besterik ez det eraten
zu lako ardo klasiaz.
- 8/ —Esaten dezu etzaitudala
nik zu batere mogitzen,
etzaitut beintzat oso gutxitan
orain artean serbitzen;
adiskidea, ezin jakin det
ia zertako gabiltzen,
zer arraiotan ibiltzen zeran
nerekin auts danak biltzen.

9/ —Kantatutzeko gogoia baitu
ardo onexen graduak,
bazter guztiak biztutzen ditu
egiten degun traguak,
gero mingaiña oso berritsu,
eta falluak buruak,
bide orretan eztaduzkagu
beti pauso seguruak.

10/ —Orain artean kendua dizut
makiñatxo bat egarri,
zure eztarria billatutzen det
oso loi tartean sarri,
lenengotikan egin nizun nik
zalea ziñala igarri,
orrenbesteko txarra izan banaiz
berriro etzaitez etorri.

(1) **Juan Mugartegui** Berriatua-n jayo zan, 1933 urteko Abuztuaren 26-an, Patrikua baserrian. Jayo zan baserrian bertan bizi da.

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea. (Bertso auek plazan kantatu ta magnetofonoz jasoak izan ziran.)

IRASTORZA-TAR IÑAXIOREN ERIOTZ
ZORIONTSUAN BERAK ESANDAKO KON-
TSEJU TA ITZ LAZTANAK BERE ANAI
JUAN JOXEK BERTSOTAN
JARRIYAK (1)

1/ Oraintxe dala urte bete bat,
Iñaki, ginduzun utzi,
Apirillaren lenengo eguna,
iñoiz eztiteke antzi,
Jaunan laguntza zuregan nola
gendun guk, anai, ikusi,
ain maite zendun izkuntz onetan
nai nuke adierazi.

2/ Egun onetan Jaun Zerukoak
aldatu zizun bizia,
nik ez nun asko pentsatzen bafia
zuk aurretik ikusia,
guri esanaz: "Oraintxen laister
dator nere agonia,
nere ondora atoz zu, Jesus,
lagun ixtimagarria."

- 3/ "Mundu onetan izateko ni
negoen pozez betea,
bañan emengo egun laburrak
neretzat errematea,
lagun maiteok, artu zazute
danok konformidatea,
eta nerekin bete dedilla
Jaunaren borondatea."
- 4/ "Nere emazte biotzekoa,
zergatik ola goibeldu?
lur gaiñ onetan daukagun zorra
danok biegu ordaindu,
egun batean batu giñunak
berak banakatzen gaitu,
ni ondo nua, Xebastiana,
etzaitiala tristetu."
- 5/ "Al baldin balitz nere esanak,
Xebastiana, eintzazu,
nere biotzak gauza askotxo
gaur esan nayak dizkizu."
Emaztearen erantzun ona:
"Iñaxio, ba esazu,
al dedan dana egiteko ni
gertu emientxe naukazu."

6/ —“Nik ondo dakit, gelditzen zera
lurrean lan askorekin,
konformidade on bat ar zazu
Jaunan borondateakin,
otoitz egiaz Arantzazura
itxaropen osoakin,
estu-alditan lagundutzeko
Ama or dezu zurekin.”

7/ “Irugarrendar nolatan naizen,
Xebastiana, bakizu,
San Frantziskoren abituakin
gorputz au jantziko dezu,
elizkizunak arratsaldetik
al balitza egin tzazu,
entierroko bazkaritara
iñor ekarri etzazu.”

8/ “Beren oituraz nagusi jaunak
koroya bialtzen dute,
gorputz ondoan eramaterik
ez nuke naiko nik bate,
mundu ontako aundikeriak
uxa itzazu aparte,
beraren ordez dirua ar zazu
eskeñitzen badizute.”

9/ Danoi begira alaitasunez
antiajuak arturik:
"Aiba, osaba, geyago ez dut
auezaz baliatzerik,
obra on asko egin tzazute
geroko utzi gaberik,
lendik egiñak nik lagun ditut,
orain ez dut egiterik."

10/ Gurutz santua besarkatuaz
agurtu zun bereala,
emazteari ematen dio
ta berak gorde dezala:
"Xebastiana, zeñen ona dan
egiten digun itzala,
aurrera ere famili ontan
berak agindu dezala."

11/ "Anai Juan Joxe, maitasunakin
guziok gerade bizi,
ni illagatik zorion orri
al dezuten arte eutsi,
nere fameli biotzeko au
laguntzik gabe ez utzi,
al bazeneza nere semeai
lanbide bat erakutsi."

12/ —“Anai Iñaxio, etzazu pentsa
derrepentean iltzia,
nik espero det zu osasuntsu
beti bezela jartzia,
gerta diteke zure aurretik
neu mundutikan joatia,
lur gain ontako etorkizunak
ola gertatzen baitia.”

13/ —“Anai maitea, nere autikan
azken itzak or dituzu,
aingerutxoak bidean dauzkat,
iltzera nijoakizu,
nik emandako kontseju auek
gogoan izan itzazu,
nere librua artu zazu ta
otoitzak egizkidatzu.”

14/ Jauna serbitzen sayatu zifian
zeure bizitza guzian,
apostolutza zuzen egifiaz
mundu danaren erdian,
osasanakin zebiltzanean
eta berdin agonian,
orain gure zai egongo zera
zeruetako glorian.

Entzulea: Aita-gure bana eskatzen dizutet bere animaren alde, bera bezela bizitzen, ta eriotz on bat egiten lagundu dezaigun, ta egun batean zeruan guziok alkartu gaitezen.

Azkeneko itzetan bertso au berak esan zuen:

*Bordako ateari
kendu maratilla,
Jesus artzaya dator
ardiaren billa,
Arentzat goiz argia,
neretzat gau illa,
zeruko barrutian
deskansa nadilla (2)*

(1) Juan Jose Irastorza Orio-n jayo zan, Itxaspe baserrian, 1922-ngo Martxuaren lenengo egunean. Orain Lezo-n bizi da ezkondata.

(2) Bertso au Igeldo-ko erretorea dan Fabian Loidi apaiz jaunarena da.

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea.

Urrena datozen bertsoak ondo konprenitzeko, egoki izango da egillearen eskutitz au emen jartzea:

10-12-1962

Nere adiskide:

Esan bezela, emen bialtzen dizkot amar bertso-paper txapelketarako. Doñua "Aizaki, motel mañontzi" bezela. Gure berri ez dakienak bertso batzuetan ez du gauza garbirik arkituko. Orra:

Zortzigarren bertsoan eta beste zortzi bertso soko sortan aitatzen dan Pello eta ni ez gera eiztariak izatez, aruntz joan arte ibilli gabeak alegia, eta Pellok, zortzietako bigarren bertsoan esaten dan bezela, galtzarpean eskopeta zuala tiratzen zun apuntatu gabe, alde artara begira jarri eskopetaren kafiñoa ta beste gabe; orregatik egin nun ainbeste parre, bi tiro ala egiten eta gero makillakin bezela eskopetakin joka arrapatu ezifñik ikusi nuanian.

Gero eskuan zuala jotzea pena ematen ziola ere egia da, jotzen asi ta poliki-po-

liki itotzen zion, eta aregatik oraindik ere biziko zan.

Jesusek anjinak arrapatu zitula ere egia da, artean bi egun genduzkala.

Bostgarren bertsoan aitatzen dan "euliya" lagun baten ez-izena edo gaitz-izena da, eta bestela're bera da txikiena; eper-taldea jai-ki eta bi tiroz bi il eta bestea eritu, au da iru bota.

Bederatzigarrenean dagon arri-puska, an asko daude amar bat toneladako, arriaren gañean bestea bi edo iru toneladakoa, eta Josek salto egin da erori zana ere tonelada baño aundiagoa izan bear zun. ¡Ura eskapa!

Imanoli eskutik iges egindakoa ere egia da.

Amaikagarrenean esaten dan bezela, nik ez nun ezer jotzen eta azkeneko egunian zelayan zegon abarka zar bati tira nizkon bi tiro, eta baten jo nun justu-justu.

Amabigarrenean dagon bezelaxe ekarri giñuzen eizak; gañontzeko ontzak, okillak eta abar bertan utzi giñuzen.

Guardak arrapatu giñuzela ere egia da, kotxetik erbia botata; eta denuntziatu bearrean, soziedadeko guardak nola ziran, sozi-

yo sartu-azi giñuzen lau, oietatik bat zan Pello; danon artean 820 pezeta ordaindu bearizan giñuzen, erbia zala ta etzala.

Beste gabe, agur.

Zure adiskide:

Lazaro Garate (1)

(1) "Bedorren galderari erantzunaz esango diot, Arrua-bean, au da Zestua-ko erri-pean, jaiointzala 1927-ko Abenduaren 17-an. Orain Zestua-n bertan bizi naiz, eta zapataritzan irabazten det eguneroko ogia. Oraindik ezkongai nago, edo mutil zar, nai duen bezela." (Bere eskutitz bate-tik.)

BERTSO BERRIYAK
GARATE-K JARRIYAK

- 1/ Pentsatu gendun bein eta
baita ere dirua bota,
aurresti-kutxean sariya erten
bost milla pezeta,
juan giñan eperreta
guztiyok pozez beteta,
esperantza ona eman gendun
kotxian sartuta.
- 2/ Gu nola ibilli geran
ezagun degu tankeran,
txoferra jatorra gendun Mikel
gustatzen dan eran,
broma galanki bezperan
eta seriyo erteran,
gero bidean lo ez artzeko
ez jan da ez eran.

- 3/ Goizian goizo jaikiya
ta esnatu gabe iya,
kotxian argira bota zuan
Olalde-k erbiya,
or datoz iru guardiya,
galdu da pekatariya,
erbi polita bestela baiña
oso garestiya.
- 4/ Bat bear gendun da maisu
bialdu giñun abisu,
ark eperrak erakutsi zizkun
baiña zeuden izu,
zeuk ikusi ezpadezu
guztiya sinistu zazu,
guk merezi aña portatu zan
Pelix Zubimusu.
- 5/ Marka danak ausi ditu,
orra berriya gelditu,
bi tiroz bi eper garbitu ta
bestia eritu,
baiña etzun arrapatu
naiz gogotikan segitu,
“euliyán” marka aundiña bayetz
nai dunai apustu.

6/ Luzia komeri bueltan
bai eta ere bertsotan,
txapelduna gendun mutil auxe
klase guztietan,
iya gelditu zan bertan,
sei bota zituan artan,
oraindik naikua ez omen du
egin eperretan.

7/ Guk emandako apanak
ezin ekarri gauz onak,
aiek ziran pausuak Jesusek
egiten zitunak,
eta tiruak zuzenak
eperrai tira zizkonak,
bat etzun utziko izan ez ba-
zitian anjinak.

8/ Amaika olako aziyo,
gero ta askoz alayo,
ez nuan uste Pellok zuanik
ainbat apiziyo,
erbiyai anka jo diyo,
eta eperrari nayo,
Salamanca-ko eiztarietan
egin da zoziyo.

- 9/ Neuk ikusi nun tiroka,
ta jotzen zun, ezin uka,
tiruan bat botatzen zituan
ontz, okil ta mika,
baiña eperrak igesika,
Jose atzetik segika,
salto batian bera bota zun
iura arri-puska!
- 10/ Eztuenari ikusi
au zeñek sinistu-azi?
tirua artuta eperra azkar
lurrera zan jausi,
baiña artian zan bizi
ta etziyon ondo eutsi,
Imanoli eskutik eperra
jaiki ta igesi.
- 11/ Salamanca-ño juanda're
ez det nik bota batere,
eiz-kontu ortan jarriya nago
inutillan pare,
ozta-ozta abarka're,
pentsa bear nun len ere,
aidera ezin jo tellatutikan
beya botata're.

12/ Ondo ibillitakua
da konta bearrekua,
igaro degu eiz-toki onena
Salamanca-kua,
bost koneju ta usua
ta sorta bost erbikua
berrogei ta zazpi eperrekin
¿ez al da naikua?

* * *

1/ Zabaldu orduko argiya
Pellok bota zun erbiya,
baiña ez dauka ez berak orren
merito guziya,
naiz izan tiroz josiya
artian bazun biziya,
kokotian jo ta bukatu zan
aren istoriya.

2/ Baldin ez banun ikusi,
ez nuan jakingo kasi,
galtzarpian eskopetarekin
tira zun itxusi,
lenbizikuak igesi,
bigarrenez anka ausi,
makillatzat eskopeta artuta
zun gelditu-azi.

3/ "Orain zer egingo detan
esaidak ik benetan,
txintxilika artuko al diat
edo utzi bertan?";
ustez banekin nik ortan
ta "jo zak azkar kokotan"
esan niyon nik asi zanian
oyu tristietan.

4/ —"Onek ematen dik lana,
etorri dek ba nigana,
orain eriotza eman bear
bizi zitekena,
tirua ortxe duana,
daukak ik ondo entzuna,
baiña kokotian jotzia e-
maten zirak pena."

5/ —"Jo zak oraintxe aguro,
emen eztek eta giro,
len eman dizkok orrelakori-
kan gabe bi tiro,
jakiñekoa dek gero
akabatzia zearo,
errexat dala kokotian bi
kolpe eman ezkeru."

6/ —“Lan au dek izugarriya,
nik nola kendu biziya?
animaliya neretzako dek
ain maitagarriya”;
egiten zuan guztiya:
eskuan artu arriya,
ta kokotian jo bearrean
egin kariziya.

7/ —“Ekatzik ori neri ta
laister dek arnasa utzita,
joko diyat nik bildurrik gabe
belarriz eutsita”;
ezin liteke sinista,
dana odolez bustita,
laister utzi nun lepa-ezurra
zearo ausita.

8/ Ark eman ziran ikara:
“Geyo ez agertu bistara,
betiko utzi dit nere biotz
barruko tristura,
nua gaurtikan aurrera
erbiyari laguntzera,
ta sekula geyo ez naiz beintzat
juango eizera.”

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik
gabea.

BERTSO BERRIAK
JUAN IBARZAZAL-EK JARRIAK

1/ Bilbora juañ gifañ
zortzi bertsolari,
Balentin Enbeita ta
Deunoro Sardui,
Ireneo gaztea
eta Mugartegi,
Ormaetxe zarra ta
bestia Alberdi,
ta Azpillaga ori,
eta ni Buztarri,
antxe gifañ jarri
estu eta larri,
goiz artan pasa gendun
naikua egarri.

2/ Egun artan nuen nik
eztarria latza,
alegiñ egin arren
ezin bozik altxa,
lenengotikan galdu
nuen esperantza,
gaizki ote nebillen
artu nuen antza,
batzuek gorantza,
bestiak berantza,
aura zan balantza,
nerbiyuak dantza,
pentsatu nola zegon
nere biotza.

3/ Laurak aldian gero
bazkari fuertia,
fidegu-sopa eta
ardi-txuletia,
ardo epela eta
gañian frutia,
oi ta amabiña duro
zan gure kantia,
kontu dezentia,
jaiki zan jentia,
zabalik atia,
libre juatia,
neri etzat aztuko
orduko bueltia.

4/ Neskazar bat izan zan
gu serbitzekua,
izketan ematen zun
Kastilla errikua,
gonak motzak jantzi ta
zabalik kolkua,
anka okerrak eta
bizkarra kakua,
gorputza sikua,
oingo modakua,
luzia pikua,
garbitu bakua,
danak iguindutzeko
zer nolakua.

IKUSI: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik ga-
bea.

BERTSO BERRIAK
NAGUSI GOGOR BATI
JUAN AZPILLAGA-K JARRIAK (1)

1/ Itz egin biarrian
nago, nagusia,
erabaki dezagun
daukagun auzia;
txikia da ematen
dan irabazia,
langille-taldea da
asarrez josia,
egiten dezulako
gauza itxusia.

2/ Amaika pena pasa
biar biotzian,
poz aundirik ez dago
etxian sartzian;
lanian gogor egin
guk aste guzian,
ala ere dauzkagu
aurrak oiñ utsian,
zer egin genezake
zuk eman-ezian?

3/ Dirua dadukanak
lezazke gauz onak,
baña galdu dituzu
len zenduzkan sonak;
dirua nun nai bota
ta pasatu bromak,
bizimodu eskasa
menpian dagonak,
ordu bat ez du onik
olako gizonak.

4/ Bildurtuko al zera
auxen esatian!
egiten dezuna da
zuretzat kaltian;
gu sortu giñadenak
lurrealde batian,
alkar maitatzen beti
saiatu gaitian,
bestela ezin sartu
zeruko atian.

5/ Inoiz ez dezu izan
diruaren faltik,
gaitz aulerian sartu
zera orregatik;
jan nai dezun bezela
txanpana kopatik,
zabiltz, ez dezulako
biotzaren tautik,
odola zurrupatzen
gure zafñetatik.

6/ Azkena kanta biar
nizuke berela,
uste det itzegiten
alperrik gaudela;
zuk dezu borondate
eskas ta ergela,
biotzetikan ere
ain zera iguela,
etxe berririk ez det
artuko orrela.

(1) Juan Azpillaga Pasayan jayo zan 1935 urteko Azaroaren 26-an. Amasei illabete zeuzkala, Berriatua-ra joan ziran bizi izatera, eta an ogei ta bi urte arte baserritar gisan bizi izan zan. Andik Ondarrura kalera joan zan. Emen bi urte egin eta Motrikura ezkondu zan 1960 urtean. Ondarru-n lan egiten du taller batean.

BERTSO BERRIAK
JUAN LOPATEGI-K JARRIAK (1)
ENAMORATU BATEN GOGOA

1/ Neskaxa bat maite det
oso dotoria,
kolore zuri gorri,
udako loria;
bere desioz daukat
biotza gorria,
osatzen ezpadegu
batera zoria,
betiko galdua da
nere umoria.

2/ Politagorik ezta
nere erri aldian,
bere ametsez nago
juan dan aspaldian;
biotza bero eta
burua aidian,
nonbait aurkitu nayan
ni noan bidian,
itz auek esateko
desio aundian.

3/ Ezagutu nuen da
biotza det galdu,
len neukan alegria
osoro itzaldu;
dedan sentimentu au
nai diot bidaldu,
biotzaren barrua
egoki azaldu,
nere errekadua
entzun naiko al du!

4/ Enuen uste zanik
orrelako gauzik,
bizia galduko det
orain logra ezik;
laster artuko ditu
nigandik goraintzik,
eta ez tet galdu nai
nere esperantzik,
sentimentuarekin
ezpada billoizik.

5/ Bere irriparriak
emango dit poza,
eta aldenduko du
nik daukadan lotsa;
xamur egingo diot
amorio-boza,
berekin nai dedala
bizitza au goza,
artu nai baldin badu
neronen biotza.

6/ Biotz onek badauka
or naiko arazu,
barrutik kendu nairik
ainbeste enbarazu;
ene maite goxua,
entzungo al dirazu!
nere munduko amets
bakarra zera zu,
penaz il enaitian
zeuretzat ar nazu (2).

(1) **Yon Lopategi Lauzirika:** "Muxika-ko Aldori deritxon baserrian jayo nintzan 1934-garren urtean.

1946-tik 1953-era bitartean Tolosa-ko Sakramentinoetan bizi izan nintzan eta 1953-tik 1956 arte Billaro-n, Bizkaya-n.

1961-ko urtean Mungi-ko txapelketa irabazi neuan, eta 1962-ean be barriro Mungia-n txapel-dun gelditu nintzan, baita Gernika-ko azken aurreko txapelketan, eta Bilbo-ko txapelketa nagusian be.

Aldori nere jayotetxean bizi naiz eta Gernika-ko opiziña batean egiten dot lan. Oraindik ez-kondugabea naiz." (Bere eskutitz batetik.)

(2) Bertso auek kanta-paper batean argitaratu zituan, bañan liburu ontarako Lopategi-k anta emen ikutu batzuk egin dizkio, zenbait aldaketa sartuaz. Kanta-paperak gure liburuarekin al-daketa auek ditu: 1/7: osatuko genduke; 1/9-10: artuko baldin badu — nere amoria; 3/9-10: biar egingo diot — nere errekadu; 4/3-4: biziak juan biar — dit logratu ezik; 4/9: bera sentimentuaz; 5/4: dadukadan lotsa; 6/1-5: Auxe da nik biar-ke — daukadan arazu / barrutik kendu gura — dedan enbarazu / ene maite laztana; 6/10: zuretzat. (Moldiztegiaren izenik gabeko bertso-pa-pera.)

BERTSO BERRIAK

1/ Nere lagun zar baserritar bat
ikusi nuan lenguan,
kontu zar pranko berritu ere bai
oso itz duna zeguan;
berebiziko mamia dute
artu ezkerogoguan;
bertso berritan jartzera nua
kantatutzeko neguan.

2/ —“Ai, adiskide: baserritarrak
arras ondatuak gera,
lan geiegi ta bizi eziña
au al da bada jokera?
bearkizunak ugaritzen da
irabaziak atzera,
gure baserri zarrak badatoz
amillka goitikan bera”.

3/ —“Miña sendatu nai degunian
miatu ondo zuztarrak,
orretarako aztartu bear
gure baserri baztarrak;
dema onetan aurretik nola
dijoazen kanpotarrak,
aurrerapenen billa saiatu
bear du baserritarrak”.

4/ —“Baserritarrok beti arlote,
orixe guretzat miñ da,
ariñ juañ ziñan kale aldera
zer zetorkizun jakiñda;
aurrerapenez ez degu jaten
baizik lana beltz egiñda,
lurrak ez baitu ezer ematen
egon ezkerro etziñda”.

5/ —“Ezagun dezu lur-lanetara
itxuturikan zaudela,
eziñ oartu bizi-bideak
geiago ere badaudela;
ainbeste nekek gaur bear luken
ainbat sari ez dutela,
zertako jardun lur maneatzan
oraiñ eun urte bezela?”.

6/ —“Lurrari kentzen ez badiogu
ez daukagu guk jaterik,
zortzi orduan ez dago emen
jornalik irabazterik;
dirurik gabe, ondo dakizu,
ez dago ezer erosterik,
nekatu edo gosea pasa,
emen ez dago besterik”.

7/ —“Nere iritziz soroko lanak
dira pixu ta gogorrak,
zenbat izardi alperrik galtzen
dizu udako legorrak!
urre txikirik ez du ematen
puskatu arren sokorrak,
dirua artu nai baldin badezu
gizendu itzazu txekorrak”.

8/ —“Zenbat komeri negon munduan
oraindikan ikusteko!
naikoa zera zalantzan dauden
baserritarrak galtzeko;
lau bei baditut, ta idi paria
uztarri-lanak eiteko,
nun dezu jana oiez gañera
txekor asko gizentzeko?”.

9/ —“Egiñ siloak, bete belarrez
da arto berdez puntaraño,
orretarako berdiñ baitio
egon argi edo laño;
lagun maitia, nola etzera
kontuan jausi gaurdaño,
bei batek esne geiago dula
amar idi parek baño?”.

10/ —“Onek atera digu ederki
oraiñ eltzetikan babak,
izketan oso azkarra dago,
nork jarri berari trabak?
egur erretzen pijuak dira
nere andre ta alabak,
idirik gabe nola ekarri
menditik egur da zarbak?”.

11/ —“Zenbaiti gauzak buruan sartzen
ez da izaten samurra,
ez nuan uste zendukanikan
ain begi-bixta laburra;
sua egiteko toki askotan
bartzartu dute egurra,
ez al dakizu askoz obe ta
merkego dala simaurra?”.

12/ —“Ola moduzko sermoia pranko
entzun degu aspaldian,
baserri-lanak erreztxo egiten
baitira kale-aldian,
simaurrekiñ gasa eginda
sua jarri sukaldian...
esan zaidazu aztikeriak
ta sorgintzak ez al dian?”.

13/ —“Adiskidea, kontura zaite
nola dauden sagastiak:
zuaitz geienak zartu zaizkizu,
lenago ziran gaztiak;
santa sekulan iñausi gabe
danak miuraz betiak,
sagar geiago zertan ez artu
salduta eukirik guztiak?”.

14/ —“Eziñ ukatu arrazoi guztiz
ari zerala izketan,
egarri bera nabaitzen degu
gure ondorengoetan;
izan dezagun fede pixka bat
baserritar gazteetan
ta guretzako erakutsiak
dituzten liburuetan”.

15/ Ikasbideak geitzen dijoaz,
onek bear gaitu poztu,
goruntz dijoan gaztediari
arren egorik ez moztu;
baserrirako zaletasunik
ez dezagula izoztu,
sukaldu kutun maitagarriak
iñoiz ez ditezen oztu.

I. OLEA (1)

(1) **Inozentio Olea Ariztimuño:** "1921-garren-
go Abenduaren 28-an Zerain-go Mendarte base-
rrian jaio nintzan eta bertan azi, eta bizi ere bai
25 urte nituan arte. Orain Legazpi-n bizi naiz
ofizinan lan egiñez, eta ezkondua naiz." (Bere
eskutitz batetik.)

IKUSI: Bertso-papera: "Imprenta Martiarena —
Azcoitia".

ARKIBIDEA

Itzaurrea	7
Bertso Berriyak Lexoti jaunari Iriarte'k jarriyak	9
B. B. Lexoti'k Iriarte'i ordaintan jarriak	14
"Aupa Soroa" (L. Rezola)	19
Soroa-ri Bertso Berriak Garmendia-k sortuak ...	23
B. B.: "Milla beatzireun berrogei eta..."	29
B. B.: "Milla beatzireun urte pasa ta..."	35
Kristauaren Bizitza (F. Vicuña)	40
B. B. Latasa ta Luxiai Lexotik jarriyak	46
B. B. Etxeberria'tar Segundo'k jarriak	51
B. B.: Mutil zarra ta neska zarra	55
B. B. Lesaka-ko Aranburu-k jarriyak	59
Gizon da andraren faltak (F. Vicuña)	64
B. B. Arruiz'ko Txikiari Albizu'k jarriak	69
B. B. astronauta eta atomikari (F. Barandiaran)	75
B. B. Guadarramako mendiko putre bati jarriak (F. Barandiaran)	79
Mendigoizaleak (Iztueta)	84
B. B. Ibai-ertz'ek jarriak	85
B. B. Salaberria'k Ama Euskerari jarriyak ...	92
B. B. Uranga-k jarriak: Ama Alarguna	97
B. B. Pujanak jarriak	101
B. B. J. Mugartegi eta J. Ibarzabal-ek jarriak: Ardoz betea ardoarekin burruka ...	107
Irastorza'tar Iñaxioren eriotz zorionsuan berak esandako kontseju ta itz laztanak be- re anai Juan Joxek bertotan jarriyak	111
Garate-ren eskutitza	117
B. B. Garate-k jarriyak	120
B. B. J. Ibarzabal-ek jarriak	127
B. B. nagusi gogor bati J. Azpillaga'k jarriak	130
B. B. J. Lopategi-k jarriak: Enamoratu baten gogoa	133
B. B. (I. Olea)	136

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso asko (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU.
3. *F. Apalategui, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso asko.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA ta beste bertso asko.
6. *Toribio Alzaga*: RAMUNTXO.
7. *Ramos Azkarate*: GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
8. *Antero Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *Bitoriano Iraola*: OROITZAK ta beste ipui asko.
10. *Bertsolariak*: ERREGE EGUNeko BERTSO SAYOA (1962).
11. *Piarres Larzabal*: BORDAXURI
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *Mariano Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *Piarres Larzabal*: IRU ZIREN.
15. *Bertsolariak*: EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *Alfonso M.^o Zabala*: GABON GAU BAT ta beste ipui asko.
17. *Antonio M.^o Labayen*: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. *Antonio Zavala, S.I.*: TXIRRITA (Bizitza ta ta bat bateko bertsoak).

20. *Franzisko Gofii, S.I.*: LURDESKO GERTAE-
RAK.
21. *Piarres Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR
ALKATE.
22. *Bertsolariak*: BERTSOLARIEN TXAPELKETA
(30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.
24. *Fermin Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *Alfonso M.^o Zabala, A. Larraitz, Juan Mir*: PE-
RIYAREN ZALAPARTAK.—Melitona'ren bi se-
narrak.—Mendibe'tarren larriyak.—Utzi bearkol
—Gizon bikañak.
27. *Bertsolariak*: AZPEITIKO PREMIYOAREN BER-
TSOAK.
28. *Bizenta A. Moguel*: IPUI ONAK.
29. *Toribio Alzaga*: BURRUNTZIYA.—Bernaiño'ren
larriyak.—Txibiribiri.—San Tomas'eko feriya.
30. *Graziano Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA
ta beste bertso asko.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO
ERROTAREN BIZITZA, bere alabak kontatua.
33. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO
ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *Piarres Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *Agustin Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BE-
RRI ONAK.
38. *Sebastián Salaverria*. NERONEK TIRAKO NIZ-
KIN.
39. *Bertsolariak*. AMAR URTEKO BERTSO-PAPE-
RAK.

